TOKIKOM
txintxarri
Urtekaria

1289. zenbakia 2015-12-29 Lasarte-Oria txintxarri.eus

ASEGURUAK Ges

Zorionak eta Urte Berri on!

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

✓Etxeko aseguruak
✓Komunitateak
✓Kotxeak
✓Dendak
✓Erretiroak
✓Istripuak
✓Enpresak
✓Bizitza aseguruak
✓Eta gehiago!

Pablo Mutiozabal kalea 2 - Tel. 943 36 58 99 / Faxa: 943 36 85 75 - cristina_arteaga@ges.es - Lasarte-Oria

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz

www.txintxarri.eus

Hurrengo Txintxarri paperean,
urtarrilaren 11ean argitaratuko dugu.

Bitartean, jarraitu herriko albisteak sarean!!

2015

Urtarrila

Otsaila

Martxoa

Apirila

Maiatza

Ekaina

Uztaila

Abuztua

Iraila

Urria

Azaroa

Abendua

Urtarrila

Eli Esnal eta Jon Iradirentzat I.go Padel txapelketa

2014-12-28 Hiru hilabetez lehian aritu ostean, Eli Esnal eta Jon Iradik irabazi zuten Lasarte-Oriako I.go Padel txapelketa. 6-2 eta 6-1eko emaitzaz hartu zituzten mendean Iñaki Lopez eta Venta Garmendia. Txapelketa bukatu ostean, Iruin sagardotegian afaldu zuten txapelketan parte hartu zuten 20 bikoteek.

'Eraso sexistarik ez!' lelopean elkarretaratzea Okendon

2015-01-03 Herriko emakume talde batek deituta, Okendo plazan bildu ziren ehunka herritar, bortxaketa saiakera bat salatzeko. 'Eraso sexistarik ez erantzunik gabe! Nahikoa da!' lelopean egin zuten elkarretaratzea. Bigarren urtez jarraian, Urte Berri egunean gertatu zen eraso saiakera hori.

Saskibaloiaren festa

2015-01-03 Bigarrenez antolatu zuen Ostadar SKTk 3x3 lehiaketa, Michelingo frontoian. Arrakastatsua izan zen oso, hainbat kategoriatan 44 taldek parte hartu zutelako. Jaurtiketa libre eta hirukoen txapelketak ere antolatuz ituen elkarteak. Jolastera zein ikustera joan zirenek gogotik gozatu zuten ekitaldiarekin, eta zer jan eta edan ere izan zuten Batxilergoko 2. mailako ikasleen eskutik. Laburbilduz, saskibaloiaren festa ospatu zen bigarrenez Lasarte-Orian.

Arteagarentzat txapela Villabonan

2015-01-03 Axier Arteaga lasarteoriatarrak eta Aitor Gorrotxategi hernaniarrak osatutako bikoteak jantzi zuen txapela Villabonan, pilota munduan izen handia duen Antton Pebeten III. Oroimenezkoan. Finalean, Xabier Santxo usurbildarra eta Kepa Kastillo markinarra menderatu zituzten, 22-15eko emaitzaz.

Errege magoen bisita

2015-01-05 Ikusmira handia sortzen du urtero Meltxor, Gaspar eta Baltasar Errege Magoen etorrerak. Aurtengoan ere horrela izan da, eta hainbat herritar irten ziren kaleetara eguraldi hotzari desafio eginez. Kabalgatan zehar hainbat gozoki bildu eta Erregeak gertutik ikusi ostean, Okendo plazan bildu ziren hiru erregeei ongi etorri beroa egiteko.

Gizon bat atxilo bost bizikleta lapurtzeagatik

2015-01-09 Ertzaintzak herriko 43 urteko gizon bat atxilotu zuen. Ikerketek Ertzaintza herriko garaje bat miatzera eraman zuten eta bertan bost bizikleta aurkitu zituzten, guztiak abenduan lapurtutakoak. Herri ezberdinetako kaleetan lapurtu zituen bizikleta hauek, Ertzaintzak jakitera eman zuenez.

Presoen oihartzuna Manuel Lekuonan

2015-01-09 Bosgarren urtez, Frantzia eta Espainiako espetxeetatik herrira ekarri zuten presoek euren ahotsa. Ordubeteko emanaldian kantua, irakurketa, grabaketa eta musika nahastu ziren. Bertaratutako askorentzat une hunkigarriz betetako errezitaldia izan zen.

Gari Arteaga garaile ehiza txikiko Urnietako txapelketan

2015-01-09 Adarra-Aballarri inguruan ospatu zen Santa Cruz elkarteak antolatutako ehiza txikiko txapelketa eta Garikoitz Arteaga herritarrak jantzi zuen txapela, Pitu txakurraren laguntzaz. Bost pieza bota zituen denera Arteagak eta horrek 510 puntu eman zizkion.

Ikuskizuna Krosaren Katedralean

2015-01-11 Teklemarian Medhin eritrearra gizonezkoetan eta Betsy Saina keniarra izan ziren azkarrenak 60. Nazioarteko krosean. Ohi bezala, eliteko atletez gain Gipuzkoako atleta gaztetxoek euren maila erakusteko aukera izan zuten Hipodromoan, Krosaren Katedralean. Aurten berrikuntzen urtea izan zen halere. Lehen aldiz, ez zen urtarrileko azken igandean jokatu eta gainera, lasterkari herrikoientzat Donostia eta Lasarte-Oria batu dituen 12 kilometroko krosa egin zuten, asfaltoa eta mendia nahastuta.

'Zabaldu zure etxea' kanpaina herrian

2015-01-12 Eusko Jaurlaritzak Bizigune eta ASAP bezalako programak jarri ditu martxan azkenaldian, etxebizitza hutsak alokairu sozialera bideratzeko. Alokabideren bitartez 'Zabaldu zure etxea' kanpaina burutu zuen Jaurlaritzak, etxe hutsen jabeek programa horien berri izateko. Stand batean jarri ziren harremanetan horiekin, Okendo plazan.

Zinegotzi kargua utzi zuen Nerea Artamendik

2015-01-13 Urtarrileko udalbatzarrean PSE-EEko zinegotzi izateari utzi zion Nerea Artamendik. "Arrazoi profesionalak eta pertsonalak" tarteko, gutun bidez azaldu zituen Artamendik bere erabakiaren zergatiak. Besteak beste, udal zinegotziek elkartasuna adierazi zioten 'Charlie Hebdo' aldizkari frantsesari, urtarrila hasieran pairatutako atentatua zela-eta.

Doinu barrokoak kaperan

2015-01-16 Danok Kide elkarteak antolatutako X. Musika Topaketen baitan emanaldia eskaini zuen Ars Combinatoria taldeak. Komentura gerturatu ziren herritarrek 'Quando fuera menester glosar' izeneko emanaldiaz gozatu zuten, bi zatitan banatutako egitarau zabal batez osatua zegoena.

Corbatas FC igotzeko zorian

2015-01-16 Pipiritaren aurka 0-0 berdindu ostean, probintziako futbol 7ko lehen mailan jokatzeko ametsa zapuztu zitzaien Corbataseko jokalariei. Usurbilgo Harane zelaian jokatu zuten final itxura hartu zuen Gipuz-

Podemos-Ahal Duguren aurkezpena herrian

2015-01-17 Herritar asko gerturatu zen Lasarte-Oriako Podemos-Ahal Dugu taldeak egin zuen aurkezpenera. Bertan adierazi zuten maiatzeko udal hauteskundeetara aurkezteko asmoa, 500 herritarren babes-sinadura eta NAN zenbakiak eskutan.

Hauteskunde programa osatuta egon ez arren, hainbat gai zerrendatu zituzten lehentasunezkotzat jotzen zituztenak: lana sortzea, etxebizitza sozialak, menpekotasuna duten pertsonentzat laguntza gehiago, herriaren parte hartzea udal erabaki guztietan, zerbitzuak hobetu...

Herritarrak hauteskunde horietan parte hartzera gonbidatu zituzten.

Nahia Zudaire Espainiako txapeldun kirol egokituan

2015-01-25 Urrezko domina eskuratu zuen Nahia Zudairek 50 bizkar proban Valladoliden, Gazte Mailako Espainiako txapelketan. Kirol egokituko Euskadiko selekzioarekin joan zen txapelketa horretara.

Urrezko dominaz gain, brontzezko beste bi ere kolkoratu zituen igerilari gazteak, 50 eta 100 libreetan. Sailkapen nagusian bosgarren egin zuen lortutako emaitza onei esker.

Horretaz gain, 4x50 estiloak eta 4x50 estilo libreko errelebuetan

BURUNTZALDEA IKT

ere egin zuen igeri. Hauetan nagusi izan ziren euskaldunak.

Egindakoarekin oso gustura eta pozik azaldu zen Zudaire, eta baita Borja Apeztegia prestatzailea ere

koako 2. mailako azken jardunaldia. Donostiarrek hasieratik partidua defentsiboki prestatu zuten, berdinketarekin nahikoa baitzuten igoera lortzeko. Azken minutura arte euren areatik atera ezinik eduki zituzten arren, baloiak ez zuen ate barrura sartu nahi izan.

3. bertso desafioa ere herrikoentzat

2015-01-17 Jalgin hirugarren bertso desafioa jokatu zuten herriko Earra bertso eskolako kideek Andoaingo bertso eskolakoen aurka. Aurrekoetan bezala, bertaratutakoek egin behar izan zuten epaimahai lana eta 21-19ko emaitzarekin herrikoentzat izan zen hirugarren garaipena.

Denboraldi hasiera bikaina Enara Fernandezentzat

2015-01-18 Mendi tontorrak elurrez zuritzearekin batera ekin zioten eskiatzaileek denboraldiari. Ikusmen urritasuna duen Enara Fernandez gazteak bi urrezko domina eta bi brontzezko jantzi zituen Espainiako Federazio Kopako lehen jardunaldian, Madrilgo 'Xanadu' merkatal-gunean. Jubenil mailan lehiatzen duen estreinako urtea zuen lasarteoriatarrak.

LOKEko atletak fin pista estalian

2015-01-18 Hiru urrezko domina, zilarrezko beste hiru eta brontzezko lau eskuratu zituen LOKEk Gipuzkoako kadete, jubenil eta junior mailako atletismo txapelketan. Maider Rekondok pisu jaurtiketan, Ane Galardik jauzi hirukoitzean eta Eneritz Bustok altuera jauzian jantzi zituzten urrezko hiru dominak.

Danbor hotsak ikastetxeetan

2015-01-19 San Sebastian bezperan egin zituzten danborradak Lasarte-Oriako lau ikastetxeetako haur, gazte eta irakasleek. Donostiako egun handia izan arren, herrian ere errotuta dagoen jaia da eta halaxe erakutsi zuen haur eta gurasoen emozioak.

Besteak beste, Tatiago, Iriyarena, Polka, San Sebastian martxa, Realaren ereserkia, Lasarte-Oriakoa... jo zituzten, umore onean.

Lehen aldiz, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko ikasle guztiak sukaldariz jantzita joan ziren.

T. VALLES

Herriko danborrada San Sebastian eguneko ospakizunetan

2015-01-19 ATLO Lasarte-Oriako danborradako kideek emanaldia eskaini zuten Zubietako Araeta jatetxean.

ATLO elkarteko lehendakari eta Danbor Nagusi Felix Telleriaren gidaritzapean, Raimundo Sarriegik konposatutako obretan oinarritutako ikuskizunaz gozatu zuten Araetara joan zirenek.

Santi Arrozpide espetxeratzeko agindua

2015-01-20 Entzutegi Nazionaleko Fernando Andreu epaileak Santi Arrozpide espetxeratzeko agindu zuen "ihes egiteko arriskua" dagoela argudiatuz. Arrozpidek ez zuen deklaraziorik egin nahi izan. Agindua eman eta aurreko egunean eraman zuten atxilo Arrozpide, goizeko 9:50 inguruan, San Pedro eliza parean.

Eduki digitalak lehengoz Manuel Lekuonan

2015-01-24 Londresko Royal Opera House mitikoan grabatutako 'Opera Tosca' emanaldia izan zen Udaleko Kultura sailak eskainitako eduki digital berrien artean lehena. 50 bat ikusle bertaratu ziren Manuel Lekuona kultur etxera obraz gozatzera. Era berean, irudi eta soinu kalitatearen hobekuntza nabarmen sumatu zuten ikusleek. Artistak zuzen-zuzenean ari zirela zirudien.

Sevillano, Ormazabal eta Altuna atletak Euskadiko kluben arteko txapelketan

2015-01-25 Herriko atletek emaitza bikainak erdietsi zituzten Donostiako Antonio Elortza belodromoan jokatu zen Kluben Arteko Kopan.

Iñigo Sevillanok bigarren egin zuen 60m hesietan, 8.55eko denborarekin. Gaizka Ormazabal hirugarren izan zen 200 metroetan 22.88 eginda; eta txapelketa itxi zuen 4x200 errelebutako lasterketan ere lehiatu zuen. Bere taldea, Irungo Super Amara BAT, bigarren izan zen Atletico San Sebastianen atzetik kronoa 1:32.29an geldituta. Azkenik, Jon Altuna iraupen-erdiko atletak garaipena lortu zuen 800 metroetan, 2:03.03ko markarekin. Sailkapen nagusian Iñigo Sevillanoren Reala gailendu zen 87 punturekin. Ormazabal eta Altunaren Bidasoa Atletiko Taldea bigarren izan zen puntu bakar bat gutxiago eskuratuta.

Dinbi Banda batukada taldea 'Gu ta Gutarrak' saioan

2015-01-30 ETB 1eko 'Gu ta gutarrak' saio ospetsuko partaideak Morgan (Bizkaia) egon ziren asteburu-pasa, programa grabatzen. Bisita berezia jaso zuten orduko horretan, herriko Dinbi Banda batukada taldearena hain zuzen. Ongien egiten dakitena erakutsi zuten, batukada ikuskizun bikaina eskainiz herritar eta kameren aurrean.

DINBI BANDA

Gimnasten denboraldi hasiera Eibarren

2015-01-31 Eibarren ekin zioten denboraldiari LOKEko gimnastek. Senior A kategorian taldeka bigarren postua eskuratu zuten bost uztaien proban. Banakako jardunean berriz, Aizpea Arroyo lehena izan zen uztaien lanean eta Garazi Gomez zazpigarren.

Jubenil A mailan taldeka zazpigarren postua eskuratu zuten mazekin. Jubenil B taldekoen artetik, emaitzarik aipagarriena Ainara Apeztegiak lortu zuen, 5. egin zuen mazoekin. Kadeteetan, A kategorian, Naroa Sanzek 10. egin zuen sokekin.

Bi urre eta bi brontze juniorren Gipuzkoako judo txapelketan

2015-01-31 LOKEko judokek lan handia egin zuten Hernanin jokatu zen Gipuzkoako junior txapelketan. Josu Olmos bikain aritu zen eta urrea jantzi zuen 60 kiloz azpikoetan. Fermin Baldak 81 kiloz azpikoetan kolkoratu zuen urrezko domina. Brontzeak berriz, Ion Arroyok eta Asier Zubizarretak jantzi zituzten.

Gipuzkoako txapelketako jardun onak sari bikoitza izan zuen gainera, laurak Euskadiko junior txapelketarako sailkatu baitziren.

Otsaila

Raul Gomez Margallo V. Kirolprobak Ligako garaile, bigarren urtez jarraian

2015-02-01 Iraupen luzeko atleta herrikoi onenetakoa dela berresten du urtea joan eta urtea etorri Raul Gomez Margallo lasarteoriatarrak. Bigarren urtez jarraian, Kirolprobakek antolatzen duen liga irabazi zuen. Denera 15 proba osatuta, 1963,5 puntu zakuratu zituen. Manu Hurtado beasaindarra eta Victor Madejon irundarra izan zituen lagun podiumean.

Herritarren artean emakumezkoetan lehena Arantxa Zapata izan zen, 658,39 punturekin. Lasarte-Oriako lasterkaririk onena izan zen Mari Carmen Olaso eta Rebeca Villanuevarekin batera.

Herritarrak eztarriz sano Santa Ageda bezperan

2015-02-04 Santa Ageda bezpera izanda, ohiturari eutsiz herriko hainbat talde atera ziren kantuan Lasarte-Oriako kaleetatik.

Lehenengoak ikastetxeetako haurrak izan ziren. Bi eskoletako ikasleak aritu ziren koplaka makilaren laguntzarekin. Herriko talde ezberdinen txanda izan zen arratsaldean.

Elurra mara-mara gurean

2015-02-06 Aspaldian ikusi gabeko irudia. Lasarte-Oriako kaleak zuriz jantzi ziren, elurragatik. Haurrak elurrarekin jolasean ikus zitezkeen eta herritar asko sakelako telefonoarekin argazkiak eta bideoak egiten ere bai, ez baitzen oso ohikoa izan goiz horretako irudia.

Brontzezko dominak Arroyo eta Baldarentzat

2015-02-08 Gasteizko Arriaga kiroldegian lehiatu zuten Josu Olmosek, Asier Zubizarretak, Ion Arroyok eta Fermin Baldak. Itzulerako bidaia goxatu zieten bi brontzezko dominako uzta ekarri zuten LOKEko juniorrek Arabako lautada izoztutik.

Fermin Baldak, beste behin, maila altuko txapelketa osatu zuen. Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko borrokaldian erraztasunez lortu zituen garaipena eta brontzezko domina. Ion Arroyok lehenengo borroka gainditu ostean, ezin izan zuen finalerako txartelik eskuratu. Brontzeagatiko borrokan arerioa Ipon bidez garaitu zuen.

Tximistarreta parkea, osatuta

2015-02-09 San Pedro elizaren atzeko estalkiaren babesean bildu ziren Tximistarreta parkea pentsatzen, diseinatzen eta gauzatzen aritu diren herritar eta eragile ezberdinak, parte-hartze ekimen horri bukaera eta azken ukituak emateko. Adin guztietako jendea, haur, gazte eta heldu aritu ziren lurrari eta enbor zati bati kolorea ematen, giro onean. Haur jokoak margotu zituzten itxiera ekitaldi gisa.

Itsaspeko zinema zikloa hasi zen

2015-02-10 'Erraldoien gaua', 'Malkoak itsasoan', 'Algodre' eta 'Bali' film laburrekin eman zitzaion hasiera Danok Kidek antolatutako ziklo horri. Irudi ikusgarriez gozatzeko aukera izan zuten kultur etxera hurbildu ziren dozenaka lagunek, proiektore digitalaren kalitate handiak lagunduta.

Elbarrientzako aldagela bat Kiroldegian

2015-02-12 Herritar elbarriek kiroldegian irisgarritasun arazoak zituztela ikusita eta ezgaitasun fisikoren bat duten seme-alaben gurasoen eskariari erantzuna emanez, aldagela berezi bat eraiki zuen Lasarte-Oriako udalak.

Lehenengo solairuan kokatuta dago, kafetegiaren ondoan. Izan ere, igerilekura edo pistara joateko arazoa izaten zuten ezindu fisikoek, beheko solairuan aldatu eta gero igogailua hartu behar izaten baitzuten bainatu edota pistan kirola egiteko. Modu horretan, sarbide askoz ere errazagoa dute orain.

Kontzertu bufoa Manuel Lekuonan

2015-02-12 Gaztetxoen mozorro koloretsuek eta musikak ordubete pasatxoz gozarazi zituzten bildutako entzuleen belarriak. Besteak beste gitarra, trikitixa, zeharkako flauta, pianoa, gitarra elektrikoa, tronpeta, bibolina eta txistua entzun zituzten herritarrek.

Autore ezberdinen obrak jo zituzten: Edwin Hawkinsen 'Oh Happy day', Henry Manciniren 'Pantera arrosa', 'Marinelaren zain' herrikoia, 'Piratas del Caribe' pelikularen soinu banda... Denera 20 obra baino gehiago interpretatu zituzten Udal Musika Eskolako gazteek.

Inauteri koloretsuak herriko ikastetxeetan

2015-02-13 Mota eta kolore guztietako mozorroak soinean, dantza eta jauzi egin zuten Sasoeta-Zumaburu eta Landaberri-Garaikoetxeako gaztetxo eta irakasleek, Inauteriei ongi-etorri ezin hobea eginez.

Gaiarekin bat egin zuten ikastetxeetako. Gurasoek haurtzaroa gogoratzeko parada ere izan zuten, hainbat ipuin klasikotako pertsonaiak ikusi baitituzte ikastetxeetan: Pinotxo eta Geppetto, Popeye marinela, txerrikumeak eta otsoak... Gela bakoitzeko haurrek prestatutako koreografia eta dantzekin gogotik gozatu dute ikusleek.

Arrozpideren aurkako espetxe agindua, berretsita

2015-02-15 Santi Arrozpideren abokatuak helegitea jarri zuen herritarraren espetxe aginduaren kontra, baina Auzitegi Nazionalak atzera bota zuen eta berretsi egin zuen agindua. "Ekintza armatuak burutu ditzake ETAk eta arriskua dago Arrozpidek kartzelatik ihes egiteko". Arrazoi horiengatik bota zuen atzera Arrozpideren abokatuaren helegitea.

Hamabi domina Euskal Herriko Txapelketan

2015-02-14/15 Lau urre, lau zilar eta lau brontze eskuratu zituen Buruntzaldea IKTk Irunen eta Iruñean jokatu ziren Euskal Herriko txapelketetan.

Infantiletan Nahia Jie Villamedianak urrea eta bi zilar lortu zituen, eta Nora Irazustak brontzea.

Iñigo Ibarburuk bi urre lortu zituen 100 tximeletan, bata absolutu mailan eta bestea junior mailan. 100 libren ere brontzea eskuratu zuen eta 50 tximeletan beste bi domina kolkoratu zituen, urrea junior mailan eta zilarra absolutuetan. Haitz Mitxelenak brontzea absolutu mailako 200 tximeleta frogan. Gainontzekoak Itsaso Tolosak eskuratu zituen, zilarra lortu zuen 200 bizkar frogan eta brontzea 100 bizkar frogan.

Kirola hizpide EAJren lehen hitzaldian

2015-02-16 Jose Manuel Gonzalez kirol medikuntzan aditua eta Gipuzkoako Futbol Federazioko sendagilea alde batetik, eta Laurent Irazusta Aviron Bayonnais kirol taldeko presiden-

Inauteri asteburu bustia aurtengoa ere

2015-02-15 Eguraldi txarra izan zen berriz gurean protagonista eta honi egin behar izan zioten aurre herritarrek Inauteri jai hauetan. Hala ere, mozorroa soinean, herritarrak kalera irten ziren urtetik urtera jendetsuagoa izaten ari den mozorro festan parte hartzera. Ipuinetako pertsonaiak izan ziren nagusi.

ADURIZ DE LASARTE S.A
BERTAKO FABRIKAZIOA
2016 zoriontsu, alai eta osasuntsua opa dizuegu!!
Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Ander Barrenetxearen debuta

2015-02-14 Almeriako Klasikoa eta Murtziako Itzulia izan ziren profesional gisa Barrenetxeak jokatu zituen lehen lasterketak Murias taldearekin. Murtziako Itzulian erretiratu egin bazen ere, Almeriako Klasikoan 109. sailkatzea lortu zuen, Mark Cavendish irabazlearengandik bederatzi minutu eta erdira.

tea eta banku mugikorreko arraunlari profesional ohia bestetik, aritu ziren Villa Mirentxun euren kirol esperientziaz eta etorkizuneko proiektuez hitz egiten.

Kamera-musika Brigitarrenean

2015-02-16 Tolosatik etorritako Arimaz Kamera Orkestrak emanaldia eskaini zuen Brigitarren komentuan, Danok Kide elkartean antolatutako X. Musika Topaketen baitan. Hainbat herritar hurbildu ziren komentura, Arimazek eskaini zuen kontzertuaz gozatzera. Itziar Lujanbiok oboea jo zuen eta Arantza Etxabe sopranoak ahotsa jarri, Kepa Martinez de Albenizen zuzendaritzapean.

Bakea eta bizikidetzaren inguruan gogoeta

2015-02-18 Lasarte-Oriako EAJk antolatutako hitzaldi sortaren baitan, atzo Maribel Bakero Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeko presidentea izan zen Villa Mirentxun bakea eta bizikidetzaz hitz egiten. Esparru honetan Jaurlaritza egiten ari den lana azaldu zien bertaratutakoei, eta hauek euren galderak eta iritziak partekatu zituzten.

Maitasun galtzerdiak Aspanogirentzat

2015-02-19 Loli Galdos eta Pili Landa herritarrak Aspanogi Gipuzkoako Haur Minbizidunen guraso elkarteko kideekin izan ziren, Haur Minbizidunen Nazioarteko Egunaren harira. Porrotx pailazoa ere izan zen haiekin; festa ederra antolatu zuten Donostiako Ospitaleko zibergunean. Eskuz egindako galtzerdiak eraman zizkieten opari gira Lolik eta Pilik; esperientzia aberasgarri eta oso polita bizi zutela nabarmendu zuten biek.

Soberonen lanak Italian ikusgai

2015-02-20 Pilar Soberon herriko artistak Napolin ikusgai jarri zuen "Phylococcus installation" lana. Honakoa Art 1307 kultur erakundeak antolatutako Meta-illusioni erakusketaren baitako lana izan zen. Erakusketan, nazioarteko artista ezberdinek parte hartu zuten. Esperientzia aberasgarria izan zela aipatu zuen Soberonek.

Napoliko Villa di Donato jauregi historikoan burutu zen erakusketa hori. Erakusketaren ildo nagusia 'argazkilaritzak sortzen duen ilusioa' zen eta hauek islatzen dituzten lan bilduma ikusi ahal izan zen bertan

'Ongi etorri!' bideoa plazaratu zuen Udalak

2015-02-21 Lasarte-Oriako Udalak 300 herritar eta elkarte biltzen dituen lana sareratu zuen. Manuel Lekuonan egin zen bideoaren aurkezpen ekitaldia. Bideoa ikusteaz gain, izan zen dantza eta oroigarrientzat tarterik ere.

Bost minutuko bideoa Eztiphotoko kideek grabatu zuten, Makulu Kenek musika jarri zuen, kantaren letra Earra! bertso eskolak eta Kukukak dantza pausoak.

'Amor, vida de mi vida' zarzuela Manuel Lekuonan

2015-02-22 'Amor vida de mi vida' zarzuelaz gozatu zuten Manuel Lekuonara hurbildu ziren herritarrek. Eduki digital berrien sortako bigarren saioa izan zen. Salzburg-eko festibalean aritu ziren Placido Domingo tenorea eta Ana Maria Martinez sopranoa.

Salzburgeko festibalean aritu ziren Placido Domingo tenore ezaguna eta Ana Maria Martinez sopranoa. Bazirudien larunbatean Lasarte-Oriara etorriak zirela; emanaldia aurrez grabatua izan arren, soinu eta irudi kalitate onenei esker zuzenekoa zela baitzirudien.

Paula Ugarte eta Uxue Balerdi Gipuzkoako Saskibaloi Federazioaren teknifikazio saioetan

2015-02-22 Ostadar SKTko jokalari Paula Ugartek eta Uxue Balerdik izango Gipuzkoako saskibaloi jokalari onenekin entrenatu zuten. Donostiako Manteo Kiroldegian egin zuten lan saioa.

Beñat Telleria azpitxapeldun Aiako harrijasotze Torneoan

2015-02-22 Lan ona osatu zuen Telleria IV.ak Aian eta azpitxapeldun geratu zen, Inhar Urruzuno ondarrutarraren atzetik. 75 eta 100 kiloko zilindroz aharrak eta 125 kiloko kopa erabili zituzten harrijasotzaileek froga horretan. Telleriak 9.000 kilo bizkarreratu zituen 93 jasoalditan.

Iosu eta Josean Lasa anaiak Gipuzkoako bikotekako txapeldun Ereñozun

2015-02-22 Ostadar SKTko bolajokalariek, Iosu eta Josean Lasa anaiek, bikotekako Gipuzkoako txapela jantzi zuten Ereñozuko bolatokian. Bikote lasarteoriatarra lidergoan aurkeztu zen Ereñozuko azken probara. Lan ona osatu zuten, erregularra, eta bakoitzak eskuratutako laugarren eta bosgarren postuak txapeldun egin zituen. Guztira 371 birla bota zituzten Lasa anaiek txapelketa osoan zehar, txapela janztea lortuz.

Gizon bat atxilo, herriko hiru komertziotan lapurreta egiteagatik

2015-02-24 Ertzaintzak 46 urteko gizonekoa atxilotu zuen, hiru komertziotan lapurreta egin ondoren. Mailu batekin hautsi zituen dendetako leihoak, lapurtzera sartu ahal izateko. Atxilotzerakoan, mailua kendu eta lapurtutako dirua, batez ere txanponetan, atzeman zion Ertzaintzak. 25 aldiz atxilotu dute jada gizon hori.

Munduan zehar bidaiak otsailean

2015-02-25 Hainbat herritarrek herrialde eta toki desberdinetan izandako esperientziak erakutsi zituzten Jalgi Kafe Antzokian, otsaileko asteazken guztietan. Jordania, Marokoko Atlas ezezaguna, Pirinioak eta Alpeak eta Vietnam Hegoaldea eta Kanbodia ezagutu zituzten hainbat herritarrek, bidaiarien hitzaldi eta diapositiben bitartez.

Urruzola, Prieto, Rekondo eta Vega Euskadiko sub21 errugbi selekzioak deitu ditu

2015-02-25 Bilbora joan ziren Unai Urruzola, Xabi Prieto, Xabi Rekondo eta David Vega, 21 urtez azpiko Euskal Herriko selekzioarekin saio batzuk osatzera. Durango eta Valentziaren aurka aritu ziren asteburu horretan herriko lau rugby jokalari horiek.

Iñaki Balerdi eta Argi Iturralde gogoan

2015-02-28 Familiak, lagunek eta dozenaka herritarrek izan zituzten gogoan Iñaki Balerdi eta Argi Iturralde herritarrak, Juankar Balerdi preso ohiaren anaia eta ama duela 12 urte zendu ziren, bisita bat egitera zihoazela izan zuten auto istripu baten ondorioz. Presoen Lagunak taldeko kideek hartu zuten hitza, eta Argi eta Iñaki euren ondare direla nabarmendu nahi izan zuten.

San Juan baleontzia eta kantujira ederra

2015-02-28 Ehun bat lagun bildu ziren Oinatz taldeko lagunek Xumela koruarekin batera Pasaiara eta zehazki, Albaola museora antolatutako irteeran. Bertan baleontzi baten eraikuntza nolakoa zen ezagutu zuten partaideek, XVI. mendeko San Juan baleontziaren erreplika, hain zuzen.

Bidaiaren ostean, Hondarribi, zarautz eta Lasarte-Oriako koruak zeudela baliatuz, kantu jira egin zuten.

Martxoa

Hamaika ekintza Andaluzia egunean

2015-02-28/03-01 Semblante Andaluz elkarteak Andaluzia eguna ospatu zuen. Musika, dantza ikuskizunak eta jaia nagusi izan ziren.

Elkartearen zuzendaritza berria ere izendatu zuten. Jose Mari Mellado bazkideak hartu zuen Semblanteko lehendakaritza.

Hainbat herritar Donostiako lilatoian

2015-03-01 Ia 4.000 korrikalari izan ziren Donostian egiten den 5km-ko lasterketan. Horien artean, 112 lasarteoriatarrak ziren. Herrikoen artean azkarrena Nieves Civicos izan zen ibilbidea 21:13ko denboran osatuta.

Ormazabal eta Sevillano Gipuzkoako txapeldun

2015-03-01 Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen Gaizka Ormazabal herritarrak 200 metroetan, 22,50eko marka pertsonala eginez eta Super Amara-BAT taldeko errekorra ezarriz pista estalian.

Iñigo Sevillano Realeko atletak 8,62 segundotan gelditu zuen kronoa 60 metro hesietan eta Gipuzkoako txapela janzteko balio izan zion markak.

LOKEko Maider Rekondok zilarra erdietsi zuen pisu-jaurtiketan 11 metroko marka eginda. Ane Galardik berriz, hiru domina jantzi zituen orotara: brontzezkoa luzera eta 60 metroetan eta zilarrezkoa jauzi hirukoitzean.

Bikain Andoaingo 10. Piano Jaialdian

2015-03-01 Musika Eskolako 17 gaztek parte hartu zuten Bastero Kulturgunean ospatu zen Piano Jaialdian. 874 piano ikaslek hartu zuten parte guztira, 6 eta 18 urte bitartekoak. Gaztetxoek urrezko, zilarrezko zein brontzezko dominak eta diplomak jaso zituzten epaimahaiko kideen eskutik.

Kudeaketa gastuetan murrizketa

2015-03-05 EH Bilduk agerraldia egin zuen Udalaren kudeaketa gastuak murrizte aldera hartutako zenbait erabaki azaltzeko. Koalizio abertzaleak jakinarazi zuen lau urtetan milioi bat euro baino gehiago aurreztu direla.

Era berean, agintaldiaren balorazio positiboa egin zuten, gastuak kontrolatu zituztela adierazi eta beharrezko murrizketak egin zirela gehiegikeriarik egon ez zedin.

Gure Esku Dago sarea osatzen

2015-03-07 Apirilaren 25ean egingo den ekimenaren aurrekari gisara egin zuten oihal-martxa herrian. Koloretako oihalek alaitasuna eman zieten herriko kaleei; tutore zein saretuen eskuetan egon ziren.

Emakumeen eskubideen aldarria

2015-03-08 Emakume langilearen nazioarteko eguna ospatzeko hainbat ekintza burutu ziren herrian. Okendo plaza izan zen aldarrikapenen gunea. Zambra dantza taldeak eman zion hasiera egunari. Ondoren, elkarretaratzea egin zuten plazan bertan egun berezia gogora ekarriz. Hainbat udal ordezkarik eman zioten babesa bilkurari. Gazte Klubeko gazteek argazki-marrazki murala egin zuten eta Amalur eskolako lagunen eskutik kalejira egin zuten erdialdeko kaleetan barrena.

Egunean bertako ekintzez gain beste hainbat ere egin ziren herrian, hala nola, Lan eta Lan antzerki taldeak 'Tartufo' antzerkia, afari herrikoia edo ipuin-kontalaria.

Musika eta poesia uztartuz

2015-03-08 Carlos Rosat (flauta), Mario Telenti (pianoa) eta Tomas Ruti (ahotsa eta fagota) herritarren eskutik, musika eta poesia errezitaldia izan zen Atsobakar egoitzan, Danok Kide elkarteak antolatuta.

Errigoraren 1.500 litro herrian salduta

2015-03-13 Denera 310 bidoi saldu ziren Lasarte-Orian, horietako 91 ekologikoak eta gainontzekoak konbentzionalak. Aurrera begira, Errigoraren erronkak kontsumo ohituren aldaketan sakondu eta are jende gehiagorengana iristea direla zehaztu zuten.

Erorketak saihesteko gomendioak

2015-03-13 Etxean zein etxetik kanpo gertatzen diren erorketak ekiditeko aholkuak eman zituzten adituek Biyak Baten egindako saio berezian. Tolosako Osasun Publikoko Nagore Errastiren eskutik jaso zituzten aholkuak erretiratuek.

Multikirola euriaren babesean, eta irribarre batekin

2015-03-14 Eguraldi txarrari aurre eginez, primeran pasa zuten herriko hainbat gaztetxok Michelingo atletismo moduluan. Besteak beste, jauziak egin zituzten, jaurtiketak, abiadura lasterketak… Usurbilgo Udarregi ikastetxeko gaztetxoekin batera burutu zituzten proba horiek guztiak. Denera 60 haur elkartu ziren.

Aritz Solano eta Julen Loitegi Gipuzkoako azpitxapeldun

2015-03-15 Gipuzkoako trinkete txapelketako finalak jokatu ziren Irurako trinketean. Aritz Solano herriko atzelaria eta Julen Loitegi urnietarra I. senior mailako azpitxapeldunak izan ziren Villabonako Behar Zanaren aurka 40-25 galdu ostean. 22. tantora arte partidua gogorra eta lehiatua izan zen, Villabonako jokalariek partiduaren lema hartu eta nahierara bideratu zuten arte.

Korrika kulturala bertsoen eta antzerkiaren inguruan

2015-03-15 Asteburuak iraun bitartean bertsoa eta antzerkia izan ziren protagonistak Korrika kulturalaren baitan. Bertso saioan AEKko ikasleek jarri zizkieten gaiak Labaka, Azpiroz eta Mendizabal bertsolariei.

Larunbateko bertso afari literarioan berriz, Uxue Alberdik, Igor Elortzak eta Ane Labakak berak egin zuten bertsotan, Harkaitz Cano herriko idazlea gai-jartzaile zutela. 'Zu Gabe' antzezlana ere ikusgai izan zen.

Ostadarrek antolatuta mendi irteera egin zuten eta Kukukaren eskutik kale-antzerkiaz gozatu zuten herritarrek.

Urchueguiaren aurkako salaketa

2015-03-10 Ohiko udalbatzarrean Pablo Barrio alkateak jakitera eman zuen Ana Urchueguiaren aurka abenduan udalak aurkeztutako salaketa tramitera onartu zuela Donostiako instrukzioko 3. epaitegiak, "delitu zantzuak" daudela argudiatuta. Alkateak azaldu zuenez, diru publikoen prebarikazio eta bidegabeko ustezko erabilpenagatik jarri zitzaion salaketa Ana Urchueguia alkate ohiari.

Gainontzeko alderdiek plenoan bertan izan zuten honen berri eta ez zegoen gai zerrendan aurreikusita.

Lasarte-Oria euskahaldun!

2015-03-18 eta 22 Martxoaren 18an, Korrika txikia egin zuten herriko ikastetxeetako haurrek gure herriko kaleetan zehar.

Martxoaren 22an berriz, Lasarteoriatarrek 12:43an zuten lekukoa Errekalden hartzeko hitzordua baina Donostiatik atzerapenarekin iritsi zen Korrika eta ordu batak pasatxo jaso zuten Muntteri AEKko hiru ikaslek lekukoa Añorgako bizilagunen eskutik.

Sorgin Jaiak, Ernaiko kideek, Kukukako klownak, Landaberriko guraso elkartea, Argia eta Antzako langileak, elkarte gastronomikoak, Ttakun KE, Erketz, Ostadar SKTko tenis saila, Zabaletako bizilagunak, herriko LABeko ordezkariak, TSSTak, Udal ordezkariak, Jalgunetako Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Aterpea, Uribe familia, EAJ, EH Bildu eta herriko ikastetxeetako ordezkariek lekukoa eraman zuten 9 kilometroko ibilbidean. Hipodromoko zubian Usurbilgo Lanbide eskolako ordezkariei eman zitzaien lekukoa.

Herritar ugarik parte hartu zuen 19. edizio honetan eta beste behin, une hunkigarriak bizi ahal izan ziren jendez betetako kaleetan.

KTG festan 300 gazte

2015-03-15 Lasarte-Oriaz gain, Kuadrillategi programa Lezo, Pasaia eta Oiartzungo herrietan ere burutzen da. Landaberri ikastolan bildu ziren programa horretako 300 bat gazte gazteak, elkar ezagutu eta harremanak estutzeko asmoz.

Eneritz Busto Espainiako txapeldun

2015-03-14/15 Urrezko domina jantzi zuen Eneritz Busto LOKEko atletak, Donostiako Antonio Elorza Belodromoan ospatu zen pista estaliko Espainiako jubenil txapelketan.

Bustok 60 metro hesien finalean 8,76ko marka egin bazuen ere, finalaurrekoan 8,74ko marka hobea osatu zuen, finalerako txartela nagusitasunez eskuratuz.

Kimu landaketak Goiegi magalean

2015-03-17 Beste urtebetez zuhaitzaren eguna ospatu zuten herriko ikastetxeetako ikasleek, eta helduek ere landatu zituzten kimuak beste landaketa saio batean. 150 kimu berri jarri ziren guztira.

'Euskal bidea' kafe baten inguruan

2015-03-18 Lasarte-Oriako EHBilduk '100 mila kafe' kanpainaren barruan Pello Urizar eta Xabier Isasi izan zituen gonbidatu, Villa Mirentxu egoitzan egin zen ekitaldian. Eraikitzeko dagoen 'Euskal bidea'-ri buruz hitz egin zuten kafetxo baten inguruan.

Eneko Castroren omenez, lasterka

2015-03-18 Eneko Castroren Oroimenezko XVIII. krosa jokatu zen Atsobakarren. Ohi bezala, dozenaka gaztetxok egin zuen lasterka euskara eta kirola uztartuz. 500 bat metroko barrutiari hainbat itzuli eman behar izan zizkioten guztiek. Lasterkarien ahaideek ez zuten aukera galdu eta Atsobakarrera bertaratu ziren korrikaldiak ikustera.

Emakumea eta bere kezkak

2015-03-18 Irakurle Txokoko lagunak Danele Sarriugarte idazlearekin solasean egon ziren giro ederrean. Idazle honen lehen liburua 'Erraiak' izan zuten irakurgai eta idazlearekin haien iritzia partekatu zuten.

Babyauto Zarautz-Beltzak, txapeldun

2015-03-18 Ohorezko B mailako iparraldeko multzoko txapeldun izan zen Babyauto Zarautz-Beltzak rugby taldea, partidu baten faltan. A Coruñari irabazi zion asteburuan; festak eztanda egin zuen neurketa amaitzean. 21 neurketetatik 20 irabazi zituzten Fran Puertasen mutilek.

Saiatuz Kirol Taldea abian

2015-03-19 Herritar talde batek Saiatuz Kirol Taldea sortu zuen; triatloian aritzen diren 20 lagun inguru bildu ziren MKL txirrinda dendaren babespean. Ez da herrian sortu den lehen taldea izan, 2006. urtean sortu baitzen lehenengoa Lasarte-Oriako Igeriketa Elkartearen eskutik. Desagertu egin zen talde hori ordea, eta aurten hartu du lekukoa Saiatuzek.

Enara Fernandez Espainiako txapeldun

2015-03-21/24 Andorrako Txapelketaren lehen edizioa izan zen aurtengoa eta Enara Fernandez herriko eskiatzaile gazteak ez zuen hutsik egin. Urrea jantzi zuen Grandvaliran, slalom erraldoian, Vanesa Servet gidariarekin batera

Hurrengo egunetan, Espainiako Txapelketan lehiatu zuen Enara Fernandezek, Pas de la Casan. Eta nahiz eta osasunez ez fin egon, honetan urre bana kolkoratu zuen slalomean eta slalom erraldoian.

Kirol eta jarduera fisikoaren plana

2015-03-24 2015-2018 urteen bitartean egin beharreko lanketa finkatu zuen Udaleko kirol sailak, 'Jolasteko eta jokatzeko' proiektuaren bitartez.

Kirolaren eta jarduera fisikoaren egoera orokorra ezagutzea, herriko kirol panoraman agente aktibo izan daitezkeen elkarte eta norbanako guztiak saretzea, herritarren behar eta proposamenen berri izatea eta azkenik, erabiltzaileak, kirolariak, prozesu guzti honen 'epizentro' gisa ulertuta, etorkizunera begirako kirolaren plan estrategiko bat osatzea dira Udalak aurkeztu zuen planaren helburuak.

Ekonomia sustatzeko aurrera pausoak ematen

2015-03-26 Lasarte-Oria, Usurbil Andoain, Hernani, Astigarraga eta Urnietako Udalek tokiko ekonomia eta enplegua suspertzeko asmoz, Beterri Garapen Integralerako agentzia jarri zuten martxan. Aurkezpena egin eta egoitza Hernaniko Florida auzoan dagoen Gabriel Zelaia eraikinean zegoela eman zuten jakitera.

Ione Zabalak irabazi zuen I. Margoketa Lehiaketa

2015-03-27 Herriko neska gazte batek, Ione Zabalak irabazi zuen Lasarte-Oriako I. Mural Lehiaketa Juan XXIII. plazan egin zuen lanarekin. Sorpresaz jaso zuen albistea Zabalak. Inondik espero ez zuela esan zuen, eta sariak Arte Ederretako ikasketekin aurrera egiteko indarrak eman zizkiola nabarmendu zuen.

Lore eta landare azoka koloretsua

2015-03-29 Lore, landare eta zuhaixkak izan ziren nagusi Udalak Behemendirekin batera antolatutako hirugarren lore eta landare azokan Okendon. Euria egin arren, asko izan ziren plazara gerturatu ziren herritarrak. Hamahiru postu jarri ziren guztira.

Ione Zabalak irabazi zuen I. Margoketa Lehiaketa

2015-03-28 Infantilen Gipuzkoako txapelketan eta Kadeteen Euskadikoan parte-hartu zuten LOKEko judokek, denera sei domina eskuratuz

Infantil mailan, herriko sei judokak parte-hartu zuten eta emaitza ikusgarria izan zen bost domina eskuratuta; hiru urrezko eta bi zilar, bosgarren postu batekin batera.

Kadete mailan, Jon Herrerok zilarrezko domina eskuratu zuen.

Gabon Zoriontsuak eta Urte Berri On bat opa dizuegu!

ALBOKA
Abesbatza
LASARTE-ORIA

Abestea gustoko baduzu gurekin etortzea gonbidatzen zaitugu. Ez da beharrezkoa solfeoa jakitea, 16 eta 55 urte artean egotea eta abesteko gogoa izatea nahikoa dira. Sartu **www.albokaabesbatza.com**-era informazio gehiagorako eta anima zaitez entsaio batera etortzera eta gure giroa ikustera.

Posta elek.: **info@albokaabesbatza.com**

Apirila

Iñigo Altuna garaile Deban

2015-04-02 Debako lasterketa irabazi zuen lehenengo urteko jubenil gazteak. Ihesaldian erabaki zen 86 kilometroko proba, Altuna eta beste sei iheskideren arteko esprintarekin. Azkarrena izan zen lasarteoriatarra eta Debako hondartza aurreko zuzengunean bi besoak jaso zituen.

Aste Santuko ospakizunak herriko fededunen biltoki

2015-04-03 Lasarteoriatar fededunak urteroko elizkizunak ospatu zituzten. Ostegun Santuko Meza Nagusiekin Jesusek apostoluekin eginiko azken afaria ekarri zuten gogora; Ostiral Santu egunean berriz, Jesusen Gurutzebidea gogoratu zuten Sausta, Azkorte eta Brijidetako Via Crucisarekin. Pazko Gaubela ospatu zuten larunbatean eta Pazko igande eguerdian Jesusen berpizkundearengatik egin zuten otoitz.

Soberonen lanak 'Paisaren Murmurioa' erakusketan

2015-04-11 Koldo Mitxelena Kulturunean "Paisaiaren Murmurioa" izeneko bilduman hartu zuen parte Pilar Soberon artistak. Paisaiaren ikuspegi desberdinak aurkeztu zituzten hainbat artistek, horien egon zen herritarra ere. 'Argazki izoztuak' eraman zituen Soberonek erakusketa horretara, naturaren sinbologiaren adierazle gisara.

Correos bulegoko langileak mobilizazioekin aurrera

2015-04-15 Otsailean bi lanpostu murriztu zituen Correosek, eta horren harira hainbat elkarretaratze burutu zituzten Lasarte-Oriako eta Usurbilgo langileek. Zerbitzuaren kalitatearen jaitsiera eta enpresaren kudeaketa merkantilista salatu zituzten.

Michelingo Langile batzordea bere kabuz

2015-04-16 Lasarte-Oriako Michelin enpresako Langile batzordea Zentro arteko batzordetik atera zen. Ondorioz, herriko fabrikako nondik norakoei dagokienez enpresako zuzendaritzarekin harreman zuzena izaten hasi zen orduz geroztik, hala nola, lan hitzarmena negoziatzen.

Lasarte-Oriako fabrikako langileei galdeketa bat egin zitzaien otsailean Lasarte-Oriako batzordeak zentro arteko batzordea uztearen alde zeuden jakiteko. Langileen %90ak hartu zuen parte galdeketa horretan; %64 alde agertu zen eta %34 aurka.

LAB sindikatuak historikotzat jo zuen erabakia eta irakurketa "oso positiboa" egin zuen, Lasarte-Oriako zein Gasteizko langile eta batzordeen erabakiak aintzat hartuak izan zirelako.

'Herri hezitzailea, eskola herritarra' aurkeztu zuten

2015-04-17 Herri hezitzaile eta parte hartzaile baten inguruko "hausnarketak, ekimenak eta hainbat praktika" egiten ari dira Euskal Herriko zenbait eragile, "haurrentzako, gazteentzako, eta, oro har, herritar guztientzako egokiak diren herriak eta hiriak pentsatzeko, eztabaidatzeko eta hainbat urrats emateko" lanketa eginez. Tartean da Lasarte-Oriako Ttakun kultur elkartea. Apirilean aurkeztu zuten jendaurrean egitasmo hori.

Musikazaleen hitzordu arrakastatsua

2015-04-19 Musikaren Astearen 3. edizioa burutu zen herrian. Mota guztietako doinu eta taldeak etorri ziren herrira egun horietan zehar: Hirubi taldea, Mikel Urdangarin, Ars Combinatoriaren Erdi Aroko musika eta SuBerri Akordeoi orkestra. Hainbat herritar gerturatu ziren kontzertu horietara guztietara, musika estilo desberdinez gozatzera.

Lasarte-Oriako V. BTT trabesia

2015-04-19 Bosgarren urtez, MKL txirrindularitza dendako eta Saiatuz Kirol Taldeko kideek Lasarte-Oriako BTT trabesia antolatu zuten.

Proba jokatu aurreko egunetan terrenoa moldatzeko lanetan aritu ziren jo eta su; Andatzan egin zituzten egur mozketek baldintzatuta, 29 eta 35 kilometroko bi ibilbide prestatu zituzten azken orduan. Proba herriraino bertaraino ekarri zuten aurten antolatzaileek, Antonio Mercero plazako belardietara.

387 txirrindularik hartu zuten parte aurtengo edizioan; Ekleyson Marques da Silva eta Jose Luis Iñorbe batera helmugaratu ziren. Urtero moduan, giro ona nagusitu zen egun osoan zehar.

Xanti Telleria eta 'Estai' garaile Itzurungo zaldi lasterketan

2015-04-19 1.500 metroko lasterketa nagusia irabazi zuten Xanti Telleriak eta 'Estai' behorrak. Herritarra hemezortzi zaldunen artetik onena izan zen Zumaiako hondartzan, San Telmo festetako proban. Honekin, laugarren garaipena lortu zuten erreskadan Itzurunen. Bigarren postuan beste herritar bat sailkatu zen, Guillermo Sanchez, 'Messi' zaldiarekin.

Gaixo dauden presoen egoeraz solasaldia

2015-04-21 Ibon Fernandez Iradi herriko presoaren lagunek solasaldia antolatu zuten kultur-etxean. Horretan gaixotasun larria espetxean bizitakoa den Iñaki Erro preso ohia izan zen hizlari eta berarekin batera Jabi Hernando medikua. Errok bere esperientzia pertsonala partekatu zuen entzuleekin, eta Hernandok adierazi zuen Ibonena bezalako kasuetan presoek ez dutela espetxean egon behar, etxean baizik.

Kulturak elkar ezagutuz

2015-04-20/26 Sasoeta ikastetxean Burunzpe guraso elkarteak antolatutako Kulturartekotasun asteak ikastetxea osatzen duten haur eta gurasoen kulturen arteko elkarbizitza eta adiskidetasuna du helburu. Hirugarren edizio honetan hitzaldi eta ekintza ugari izan ziren zehar eta jaialdi batekin amaiera paregabea eman zioten asteari. Kultura ezberdi-

Erabakitzeko eskubidea ehuntzen

2015-04-25 Kalejira, oihalen apainketa, hautetsontzi handiaren marrazketa, dantza... Gure Esku Dago ekimenaren eskutik jai giro ederra izan zen herrian. Ekainaren 21eko ekitaldi nagusiaren aurrekari gisa burutu zuten ekitaldi hori GED taldekoek.

Herritarrek ez zioten deiari muzin egin eta tutore zein saretuak kalera atera ziren erabakitzearen eskubidearen aldeko aldarrikapena egitera.

Lasarte-Oriako Gure Esku Dago taldeak "Hamaika itxaropen" abestia aurkeztu eta bideoklipa grabatu zuten Okendo plazan, Enara Ieregik zuzendutako koreografiarekin.

netako dantza eta musika izan baitziren protagonista nagusiak.

Euskal dantza eta sormen dantza eskaini zuten Kukuka antzerki eta dantza eskolako txikienek. Nigeriako doinuak eta nazioartekoak entzun ahal izan ziren bazkal ordua baino lehen.

Arratsaldean, kolorea izan zen nagusi. Boliviako lagunek haien folklorearen zati bat ekarri zuten bertako jantzi eta dantzak erakutsiaz.

Sevillanek eta fandangoek ere bere tartea izan zuten Semblante Andaluzeko koroaren eta Zambra dantza taldearen eskutik.

Bollywood dantzei esker Indiara bidaiatu zuen Sasoeta ikastetxeak, Amaia Gonzalezen dantza emanaldia izan zen eta azkenik, ederki astindu zituzten gorputzak salsa kubatarraren doinura.

Kadete neskek lan ederra egin zuten

2015-04-26 Ostadar SKT-ko emakumezkoen errendimenduzko kadete taldeak ezin izan zuen iaz lortutako garaipena berretsi etxean jokatutako lauko finalean. Denboraldi ederra egin ostean, Easoren aurka galdu zuen finalerdia, 44-63. Ordiziak irabazi zuen Gipuzkoako txapelketa. Aurtengoan Lasarte-Orian jokatu da lauko finala, Ostadar SKTk antolatuta.

Lierni Rekondo Gipuzkoako bertso paper lehiaketako txapeldun

2015-04-26 Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako Finala jokatu zen Irunen; Lierni Rekondo lasarteoriatarra izan zen txapelketa idatzizko edo bertso paperen alorreko txapelduna. Gaia honakoa zuen: 'Lurra, ilargia, Marte... Zein dira gizakiaren mugak?'. Berak idatzitako hiru bertsoak izan ziren onenak epaimahaiaren iritziz.

Juankar Balerdi 26 urteren ostean kalean

2015-04-27 Juankar Balerdi herriko presoa aske geratu zen 26 urteko espetxealdia bete ondoren. Huelvara hainbat senide eta lagun joan ziren harrera egitera eta iluntzean iritsi ziren Lasarte-Oriara.

Ongi etorri beroa eskaini zioten hainbat herritarrek. Ikurrinekin furgonetak iritsi zain bildu ziren herritarrak Kale Nagusian zehar eta txalo eta besarkada artean hartu zuten.

Balerdi 1989ko apirilaren 16an atxilotu zuten eta hainbat espetxetan izan da urte hauetan. Almeriako espetxean zegoela ama, Argi Iturralde, eta anaia, Iñaki Balerdi, hil ziren 2003ko otsailaren 28an, bera bisitatzera zihoazela izan zuten auto istripuan.

Mendi Kafe Rockeko dardo jokalariak txapeldun Salamancako Openean

2015-04-28 Mendik sei talde eraman zituen denera Gaztela eta Leon aldera. Horietatik bi nabarmendu ziren, hurrengo fasera igaroz.

Mendi Café Rock-ek sei talde eraman zituen denera Salamancara. Jose Manterola, Unai Falero, Juankar Pelaez, Jose Perez eta Javier Rodriguez lasarteoriatarrek txapela jantzi zuten taldekako cricket proban. Lortutako emaitza honek Espainiako txapelketarako txartela eman zien. Banakako proban Jose Maria Perezek lehen postua erdietsi zuen Salamancan.

"Dantzatzen duen herria ez da inoiz hilko"

2015-04-29 Hainbat dantza eskolek saio berezia eskaini zuten Okendon, dantzaren nazioarteko eguna zela-eta. Kukuka, Semblante Andaluz, Erketz eta Amaia Gonzalezen eskolako ikasleek hainbat pauso erakutsi eta dantzan jarri zituzten herritarrak.

Irakasleek pausuak azaldu eta nahi izan zuten herritarrek horiek ikasi eta dantzatu zituzten. Giro ederra sortu zen Okendon.

DANI karrozeria

Trebeak gara kolpe handiak konpontzen

- Kabina labeduna
- Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala
- Tapizatuen garbiketa

2016 Zoriontsua opa dizuegu!

Zirkuitu ibilbidea 12
20160 · LASARTE-ORIA
Tel. 943 37 14 40
Mugikorra: 608 39 18 85
carroceriasdani@carroceriasdani.com
www.carroceriasdani.com

LASARTEARRA
KIROL ETA KULTUR
ELKARTEA

2016 zoriontsua
opa dizuegu!

Erribera kalea 10, atzealdea - 943 36 29 97 - Lasarte-Oria

Maiatza

Oroimenaren ibilbidea DBHko ikasleekin

2015-05-02 Islada Ezkutatuak taldearekin oroimenaren ibilbidea egin zuen Landaberri BHIko ikasle talde batek. Gerra eta gerraostean gurean gertatu zena jakin ahal izan zuten gazteek. Gehienek orain arte ez zekiten Lasarte-Oriaren historiaren parte bat ezagutu zuten.

Erromeria goiz aparta Azkorten

2015-05-03 Urnietako udalak eta Ttakunek, Lasarte-Oriako udalaren laguntzarekin, bat egin zuten erromeriaren antolaketan Santa Krutz eguna ospatzeko. Hainbat herritar igo ziren autobusez edota oinez Azkorteko baselizara goiz horretan.

Meza nagusiaren ostean, Ttirriki Ttarraka musika eskolako kideen doinuek animatuta, hainbatek egin zuen dantza hamaiketakoa egin aurretik. Herri kirolek ere ikusmira handia sortu zuten ikusleen artean. Bertsolariek eman zioten amaiera erromeriari.

Ibon Fernandez Iradiren eskaera baztertua

2015-05-07 Parisko Dei Auzitegiak atzera bota zuen Ibon Fernandez Iradiren kondena eteteko eskaera. Herritarrak pairatzen duen esklerosi anizkoitza eta espetxea bateragarriak direla ebatzi zuen, eta Lannemezango espetxean preso jarraitu behar zuela adierazi ere bai.

Artea Mercero aretoan

2015-05-08 Ikusmina piztu zuen Udalak, Antxota herriko artisten elkarteak eta norbanako sortzaile batzuek elkarlanean antolatutako erakusketak.

Herriko artisten ahalmena erakutsi eta kultura artistikoa sustatu zituzten. Era honetara, Mercero guneko lau eremutan banatuta herriko bederatzi artisten 50 lan jarri zituzten ikusgai.

Atsobakarreko langileak greban

2015-05-08 Atsobakar zaharren egoitzako langileek Gipuzkoako zenbait zahar etxetan abiatutako grebarekin bat egin zuten. Clece enpresak kudeatzen du Lasarte-Oriako egoitza, eta horrek ez zuen sinatu Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatu zien lan hi-tzarmena.

Batera emanda, a ze eztanda!

2015-05-16 Lasarte-Oria hirugarren urtez jarraian jarri zuen dantzan herriko Dinbi Banda batukada taldeak.

Euskal Herri osotik etorritako Zozongo, Buruntzantzan, Sambamaña, Beriba, Kumbalaye, Builaka, Zaparrada eta Batukalek hankaz gora jarri zituzten bazterrak. Eguraldia kaxkar samarra izan bazen ere, perkusioaren bilgune bihurtu zen Lasarte-Oria orduko horretan.

Rezibatukada, body percussion eta dantza afrikarren inguruko ikastaroez gozatu zuten goizean. Indarrak berreskuratzeko paella gozoa dastatu zuten, arratsaldean zehar Okendo plazan barnean zeramaten guztia eman aurretik.

Barroko doinuak Musika Topaketei amaiera emateko

2015-05-08 Danok Kide elkarteak antolatzen dituen Musika Topaketen hamargarren edizioak amaiera ekitaldi ederra izan zuen. Euskadiko Orkestrako kideez osatutako 'Syrinx' ganbera -musika taldeak Brigitarren komentuan kontzertu paregabea eskaini zuen.

Horretan, Italia edo Alemaniako gorteetan entzuten ziren barroko doinuetaz gozatu ahal izan zuten entzuleek.

Buruntzaldea IKTko kideak fin lehiaketetan

2015-05-09 Bi lehiaketa izan zituzten Buruntzaldea IKTko gazteek. Infantil, junior eta absolutuak Paco Yoldin aritu ziren GIF 3 Sarian parte hartzen eta Nahia Zudaire igeriketa egokituko kidea berriz, Sara Carracelas Sarian.

GIF 3 sarian, 22 marka pertsonal, taldeko errelebuetako sei marka berri eta taldeko bi errekor ezarri zituzten Buruntzaldea IKTko neska-mutilek. Sailkapen orokorrean Iñigo Ibarburu hirugarren izan zen absolutu mailan.

Bestalde, Nahia Zudairek igeriketa egokituko Sara Carracelas Sarian parte hartu zuen, Errenterian. Zudaire 50 eta 100 libre eta 50 tximeleta frogetan aritu zen. Lortutako marka eta emaitzei esker sailkapen nagusian bigarren postua eskuratu zuen.

Benineko haurren etorkizuna aztergai

2015-05-10 Salesiarren Foyer Don Bosco elkarteak "Umeak arriskuan" argazki erakusketa jarri zuen Manuel Lekuona Kultur etxean.

Foyer Don Bosco elkarteak kalean bizi diren 7 eta 17 urte arteko umezurtz edo familia utzi duten gazteekin egiten du lan Beninen.

Argazkietan elkarteak bertan dituen hainbat proiektu eta etxeetan egiten duten hezkuntza lana erakusten dute. Izan ere, haur eta gazteei ikasketak edo lanbide heziketa egiteko aukera ematen baitiete.

Ostadar, Gipuzkoako areto futboleko II. mailara

2015-05-03 Ostadar Cecilia Fruta Denda Kebab Lasarte taldeak Orioko Alustiza Autobusak taldea garaitu eta helburua bete zuen, GIpuzkoako bigarren mailara igotzea. 2-3ko markagailuarekin gainditu zuten Edu Menaren mutilek talde oriotarra.

Igoera lortzeaz gain, Gipuzkoako 3. mailako txapeldun izan zen herriko taldea, Muxarrari 4-1 irabazi ostean.

2015eko aurrekontuak, onartuta

2015-05-15 Bildu, EAJ eta LOHP eta adskribatu gabeko Marisa Zubiriren aldeko bozkekin, udalbatzarrak 2015eko aurrekontuak onartu zituen. 21.7000.000 euroko aurrekontua izan du Udalak aurten. PSE-EEk eta PPk bozkatu zuten kontra.

Guztira aurten Udalak 2.038.000 euro zuzendu ditu inbertsioetara. Diru gehien, 474.000 euro, bide publikoak asfaltatzeko erabiliko du eta Sasoetako lokalen terrazen espazio librea urbanizatzeari berriz, 375.000 euro eskaini dizkio. Zumaburuko eskolako fatxada eta teilatua konpontzera 330.000 euro bideratu ditu udalak ostiraleko ezohiko udalbatzarrean onetsi bezala.

Udaberriaz gozatzen

2015-05-15 Ekintzaz beteriko udaberri festa ospatu zuten Aterpea elkarteko kideek. Outletak, eskaintza bereziak, plater dastaketa, pintxo bereziak... aukera ugari eskaini zituzten merkatari eta ostalariek egun osoan zehar. Musika ikuskizunak ere izan ziren. Etxeko txikiek Loidibarren frontoian puzgarriak izan zituzten. Olmi dendan, Zumaburu liburudendan eta Ormazabal loredendan tailerrak izan ziren.

Errekalde eta Lasarte-Oria arteko bidegorria irekita

2015-05-17 1.230 metroko bizikleta eta oinezkoentzako bidea amaitu zuten maiatza bukaeran. Donostia eta Lasarte-Oria lotuta gelditu dira, herritarrek azken urteetan egindako eskaera bati erantzunez.

Gipuzkoako txapela jubenilentzat

2015-05-17 Ostadar SKTko kadeteak lauko finalera sailkatu ziren, eta jubenilek lauko finala irabazi zuten, Ordizia 58 eta 43 garaituta.Gipuzkoako txapela jantziz amaitu zuten denboraldia juniorrek.

Bertsolaritzan trebatzeko lehenengo urratsak

2015-05-18 Gu ere bertsotan ekimeneko kurtso amaierako erakustaldia egin zuten Landaberri eta Sasoetako 5. eta 6. mailako gaztetxoek.

Ikasturtean zehar bertsotan ikasi dutela erakusteko saio originalak aurkeztu zituzten irakasle, guraso eta lagunen aurrean Manuel Lekuonan.

Guztira 200 bat ikaslek hartu zuten parte 'Gu ere bertsotan' egitasmoan.

Bizikidetza eta oroimen historikoaren alde lanean

2015-05-21 Lasarte-Oriako Udalak bizikidetza eta oroimen historikoaren alde lan egiten jarraitzeko bi hitzarmen sinatu zituen, Baketik eta Islada Ezkutatuak erakundeekin.

PSE-EE garaile udal hauteskundeetan

2015-05-24 PSE-EEk Lasarte-Oriako alkatetza berreskuratu zuen maiatzeko hauteskundeetan. Alderdi bozkatuena izan zen 3.540 botorekin eta gainontzeko alderdiak akordio batera iritsi ez zirenez, Jesus Zaballos izendatu zuten alkate. Lehenagotik ere aritu zen alkate lanetan bozeramaile sozialista, 2010 eta 2011. urteetan zehazki.

Parte-hartzea %67koa izan zen 2015eko bozetan, 2011n baino %3 altuagoa. EH Bildu izan zen bigarren bozkatuena 2.365 boto jasota; 1.480 jaso zituen Lasarte-Oriak Ahal Du alderdiak, 1.428 EAJk eta 477 PPk. Gauzak horrela, PSE-EEk 7 zinegotzi eskuratu zituen, 4 EH Bilduk, 3 LOADek, 2 EAJk eta bakarra PPk.

Alkatea ez zen izan udalbatzan aldatu zen bakarra, aurretik karguan egon gabeak ziren hainbat zinegotzi berri sartu baitira.

'Tratu On Bat' app berria

2015-05-23 'Tratu on bat' webgunearen osagarri moduan, mugikorrerako aplikazioa eskura jarri zuen Lasarte-Oriako Udalak. Lasarte-Orian, komertzioek, ostalaritzak eta zerbitzu-enpresek dute eraginik handiena hurbileneko ekonomian.

Webgunearen osagarri moduan, mugikorrerako aplikazioa eskura jarri zuen Lasarte-Oriako Udalak, bi plataforma nagusitan: Google Play-en eta App Store-n.

Kukukaren desfile koloretsua

2015-05-23 Kukuka dantza eta antzerki eskolak desfile alai batekin eman zion hasiera haren aste handiari. Eguraldi goibelari aurre eginez, desfilean atera ziren kultur etxetik eskolako ikasle eta irakasleak euren dantzak erakutsiz, kamiseta berdeak soinean.

Desfilea erdigunetik egin eta Trinketerako bidea luzatu zuten, prestatuta zituzten dantzak erakutsiz.

Trinketera iristean, talde guztiek minutuko erakustalditxoa eskaini zuten ikasturtean ikasitako guztia jende aurrean aurkezteko.

Pailazoei harrera beroa

2015-05-23 Irakurle Txokoak antolatuta, Txo Mikmak txikiaren abenturez gozatu zuten Manuel Lekuonara hurbildu zirenak. Herriko Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek bi emanaldi eskaini zituzten eta bietan goraino bete zuten kultur ,etxeko aretoa. Haur zein helduek ederki pasa zuten kanta eta dantzan.

Irakurle Txokoak antolatutako bi saioetarako sarrerak agortuta, bakoitzean 520 lagun izan ziren ikuskizunaz gozatzen. Pirritx, Porrotx eta Marimotots hondartza garbitzera joan ziren Pupu eta Lorerekin eta bertan, egurrezko baloeontzian topo egiten dute aitona Rokerekin. Ezustean, Txo Mikmak indioa Ternuatik Euskal Herriraino etortzen da bere balearekin batera. Hor hasten da abentura.

Burunzpekoen futbol norgehiagoka

2015-05-24 Sasoeta-Zumaburuko Burunzpe guraso elkarteak elkarbizitza modu berezian lantzen ari da azken urteetan. Horretarako ekintza ezberdinak antolatu eta gauzatzen ditu, tartean kirol ekitaldiak.

Orduko horretan aita talde bat osatu zuten futbol partida jokatzeko. Kultura eta jatorri ezberdinetako haurren elkarbizitza sustatzeko oinarrizkotzat jotzen dute gurasoen artean ere hala izatea. Horregatik ordukoa bezalako ekintzak antolatzearena.

Enara Fernandezen bazkaria denboraldia amaitzeko

2015-05-24 Bazkaria egin zuten Euskadiko kirol egokituko federazioko kideek, itsuentzako eskiatzaileen alorrean.

Bertan izan ziren, besteak beste, Enara Fernandez herritarra eta haren guraso eta senideak estatuko eski teknikariekin batera, Joseba Gonzalez, Agustin Sopelana eta Vanessa Servet. Denboraldi amaierako bazkaria egin eta bide batez herriko eskiatzaile gaztea talde nazionalean sartu izana ospatu zuten.

Legebiltzarrean herriko bi ikastetxeak

2015-05-28 Legebiltzarrean izan izan ziren Burunzpe, Sasoeta-Zumaburu eskolako guraso elkarteko kideak eta Landaberriko zuzendari eta guraso elkarteko kideak. Hezkuntzako batzordean izan ziren biak eta bertan parte hartu zuten ere Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak eta jarduneko Arartekoa den Julia Hernandezek.

Burunzpeko gurasoek eskatu zuten Euskal Eskola publikoaren legearen artikuluak zorrotz betearaztea eta Lasarte-Oriako eskola egoera arintzeko neurriak hartzea.

Landaberri eskolako kideak eskolan dagoen matrikulazio irizpideak, aplikatzen den baremazioren legezkotasuna defendatzera hain zuzen. Izan ere, eskolari ikasle ohien seme-alabei 2 puntu gehiago ematea zalantzan jarri da.

Argi azaldu zuten euren eskolan ez direla etorkinak baztertzen eta publiko egin diren zenbait datu ere ez direla guztiz fidagarriak, "eguneratu gabeko datuak direlako".

Auto batek su hartu zuen Geltoki kalean

2015-05-28 Geltoki Kalean Kutxa aurreko semaforoan kotxe bat erre zen.

Kotxean zihoan gizona hasieran ez zen konturatu autoaren behekaldetik kea irteten ari zela, baina herritarren oihu eta keinuek ez zuten aterarazi eta bi herritarrek atera zuten kotxetik. Handik pixka batera, eztanda handi bat entzun zen eta motorrak su hartu zuen. Gidaria onik atera zen.

Izar gaztez jositako astea

2015-05-29 Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako 13. astean herriko haur eta gazteek haien dohainak erakutsi zituzten Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan.

LH5 eta DBH 4 maila bitarteko taldeek ikuskizun paregabeak eskaini zituzten aste osoan zehar. 'Edurnezuri eta zazpi ipotxak' antzezlanaren gisako klasikoetatik hasi eta dantza emanaldietaraino, mota desberdinetako obra eta lanak taularatu zituzten gazteek, euren ikaskideen gozamenerako.

'Aeolia´s Park' Wiesbaden hirian geratu zen

2015-05-29 '9 zubi' ekimenean parte hartu zuen 2014ko udaran Pilar Soberon herriko artistak "Aeolia's Park" eskulturarekin Wiesbadenen. Brontzezko astigar hazia hirian geratu zen parke batean.

Alemaniako Wiesbaden hiriko Kurparken instalatu zen Pilar Soberon herritarraren "Aeolia's Park" brontzezko eskultura, astigar hazi bat irudikatzen duena.

XXXIV. Santa Ana txapelketa herrikoiaren hasiera

2015-05-29 Bederatzi palista bikotek ekin zioten Santa Ana txapelketaren 34. edizioari. Aurreko urteetako baldintza berak izan dituzte parte-hartzaileek aurten. Final handia uztailaren 26an jokatu zen Loidibarren frontoian. Ligaxkako neurketa denak ere bertan jokatu ziren.

Ana Urchuegia alkate ohiaren deklarazioa

2015-05-29 Donostiako 3. Auzitegiko epailearen aurrean deklaratu zuen Ana Urchuegia Lasarte-Oriako alkate ohiak. Karguan zenean burututako kooperazio lana defendatu zuen.

"Diru publikoen prebarikazio eta bidegabeko ustezko erabilpenagatik" Lasarte-Oriako udalak jarritako salaketaren inguruan azalpenak eskaini behar izan zituen alkate ohiak.

Jose Cantos Texaseko presidenteari omenaldia

2015-05-29 Texasen presidente kargua utzi zuen Jose Cantosek hogei urte eta gero, osasun arazoak tarteko. Agur esan aurretik ordea, omenaldi beroa jaso zuen. Urte horietan egindako lana eskertu nahian, bazkaria egin zuten Araetan zuzendaritza batzordeko kide, entrenatzaile, jokalari eta senideek.

Hogei urtez alboan izan duen Manuel Isasaren eskutik jaso zuen oroigarria eta emozio handiko uneak izan ziren bientzat.

Cantosek azaldu zuen osasun arazoak dituela eta hori izan dela kargua uzteko arrazoia.

Euskal dantzaz blai

2015-05-31 Erketz dantza taldea eta hainbat talde gonbidaturen eskutik euskal dantzak izan ziren protagonista Okendo plazan. I. Dantzari eguna eta XXVII. Dantzari Txiki eguna ospatu zituzten, 2018an ospatuko duten 50. urteurrenera begira motorrak berotzen hasteko.

Bi egunetan zehar hainbat herri eta hiritako dantza talde etorri ziren, Erketzekin batera dantzatu eta herria girotzera. Herritar ugari gerturatu ziren Okendo plaza eta inguruetara, festez gozatzera.

Hainbat dantza desberdin plazaratu zituzten talde gonbidatuek: ezpata-txiki dantza, makil-dantza, sardinerak, igitai-dantza, fandangoa, arin arina, Gasteizko zortzikoa eta Gipuzkoako Erromeriko doinu eta dantzak...

Herritarrek gogotik gozatu zuten emanaldi horiekin.

Laguntza emanez ondoan izan dituen guztiak gogoratu eta hitz eman zuen errekuperatzen denean "indar handiagoz" itzuliko dela "gazteek futbolaz gozatzen jarrai dezaten".

'Ta hi, nun hago?' bideoklipa

2015-05-26 Lasarte-Oriako Gure Esku Dago taldeak 'Ta hi, nun hago?' izeneko bideoklipa argitaratu zuen.

Multimedia eduki horren bitartez, ekainaren 21ean Donostiako Anoeta estadioan ospatu zen ekitaldian parte hartzera gonbidatu zituen lasarteoriatar guztiak.

Eskola Kirola amaitzeko festa erraldoia

2015-05-30 Kiroldegian eta Michelingo kirol gunean festa handi bat eginez amaitu zuten iazko denboraldia Eskola Kirolako gaztetxo eta begiraleek. 430 haur aritu ziren antolatzaileek eskaini zituzten hamabi kirol horietakoren batean edo bitan: atletismoa, futbola, igeriketa, judoa, pilota, saskibaloia, tenisa, eta abar.

Ikasturtean zehar ikasitakoa erakutsi zuten gaztetxoek aipatutako bi instalazio horietan, guraso eta lagunen aurrean. Horiek gertu-gertutik jarraitu zituzten euren seme-alabek sasoian lortutako abileziak.

Hainbat kirol eta ekintza egin zituzten gaztetxoek, eta opari eta sorpresak ere jaso zituzten. Era berean, ikasturtean zehar egitasmoa aurrera eramaten lagundu zuten guztientzat esker hitzak izan zituen Iñaki Aristondo Eskola Kiroleko arduradunak.

Real Sociedad fundazioaren eguna girotzen

2015-05-30 Jaialdi horretan 50 futbol eskoletako lehen urteko alebin taldek hartu zuten parte. Baina futbolaz gain, beste hainbat ekintza ere izan ziren Zubietako instalakuntzetan.

Udal Musika Eskolako trikitilari eta panderojoleek haien aletxoa jarri zuten jaialdi erraldoi hori musikarekin alaitu eta girotuz.

Hitz idatziak doinu bilakatzen

2015-05-30 Literatura izan zen ardatz 'Doinuak lumaz' bertso saio berezian. Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Andoni Egañak herriko 11 idazlek aukeratutako edo idatzitako testuei aurre egin behar izan zieten. Etorkizuna, hauteskunde garaiko promesak, gaztetako oroitzapenak... gai ezberdinak jorratu ziren Manuel Lekuonan, udaberriko bertso saioan.

Lasarte-Oria herriarteko txapelketatik kanpo

2015-05-31 Iazko balentriak ez zuen segidarik izan. Herriarteko txapelketari agur esan zion herriak. Joanekoan Zizurkilen 3-0 galdu zuten lasarteoriatarrek Intxaur pilotalekuan. Itzuleko errondan berriz, Michelinen, Lasarte-Oriak senior partida bakarrik irabazi zuen.

Ane Labaka irabazle

2015-05-31 Zizurkilen izan zuen Ane Labakak Gipuzkoa bertsotan txapelketako sailkapen saioa eta berak eskuratu zituen puntu gehien, 309. Eneritz Artetxe, Xabier Sukia, Gorka Maiz, Eñaut Martikorena eta Asier Sasieta izan zituen lehiakide herritarrak.

Unai Muñoak egin bezala, lehenengo itzuli honetako bi saioak irabazi zituen Labakak.

Herritarrak Olatu Talkan

2015-05-31 Ipar martxaren erakustaldian parte hartu zuen herritar talde batek.

Donostian ospatu zen aurreko astean Olatu Talka jaialdia. Honen baitan, Miramonen Ipar martxa erakustaldia egin zen eta bertan parte hartu zuen 19 lagunez osatutako herritar taldeak.

Kirol hau ezagutzera emateko erakustaldia izan zen eta honetan aritzeko argibideak eman ostean, ibilbide bat osatu zuten.



Torredembarra, lasarteoriartuta

2015-05-30/31 Primerako astebarua igaro zuten 40 bat lasarteoriatarrek Torredembarra herrian, Herrialde Katalanetan.

Larunbatean zikiro-jan gozoa prestatu zuten hainbat herritarrek, Plaza d'Escorchador delakoan. Bazkaltzeko ordua iritsi bitartean, ekitaldi kultural ugari egin zituzten Lasarte-Oriako zein Torredembarrako herritarrek. Bazkaloste luze baten ostean, Barcelona eta Athleticen arteko Kopako finala ikustera joan ziren gehienak.

Hurrengo eguna, igandea, lasai hartu zuten lasarteoriatarrek, hondartzan paseo bat eman, herria ikusi... Asteburu biribila pasa zuten herritarrek Katalunia aldean.

LOKEko neskak Gipuzkoako azpitxapeldun

2015-05-31 Herriko klubeko neskek historia egin zuten. Lehen aldiz LOKEk Gipuzkoako txapelketan lehiatzeko taldea osatu zuen. Hori gutxi ez, eta podiumeko bigarren koskara igo ziren Oscar Goikoetxea eta Amaia Andresek entrenatutako atletak.

Bi jardunaldi burutu zituzten Donostiako Miniestadioan, eta bi horietako 20 probetan batutako puntuei esker lortu zuten balentria, probintziako bigarren klub onena izatearena. Atletico San Sebastian izan zen lehenengoa eta Bidasoako Super Amara Bat hirugarrena.

Ekaina

Atsobakarreko langileen greba bertan behera

2015-06-02 CLECE enpresarekin aurre akordio bat adostu zutela jakitera eman ostean, greba egiteari utzi zioten Atsobakarreko zaharren egoitzako langileek.

Panamako gobernuko ordezkaritza Lanbide Eskolan

2015-06-02 Usurbilgo Lanbide Eskolak Panamako Ekonomia eta Lehiakortasun Idazkari Nagusiaren, Angel Esbrí -ren bisita jaso zuen.

Usurbilgo Lanbide Eskola bisitatu zuten Lanbide Heziketako Eskola Publiko baten errealitatea zein funtzionamendua ezagutzeko. Panaman antzeko ereduak ezartzeko lankidetza akordio bat adosteko ere balio izan zuen bisitak.

17 urteko zigorra Santi Arrozpiderentzat

2015-06-03 17 urteko kartzela zigorra ezarri zion Auzitegi Nazionalak Santi Arrozpideri, Madril komandoari Antonio Buron Barba Estatuko fiskal ohiaren aurkako atentatua egitea agindu ziola egotzita.

Herriko presoa Frantzian betetako espetxe urteak kontutan hartuta atera zen kartzelatik 2014ko abenduan. Erabakiak polemika handia sortu zuen, eta martxoan, Auzitegi Gorenak, baliogabetu egin zuen Plazaola eta Arrozpide aske uzteko Auzitegi Nazionalak abenduan hartu zuen erabakia.

Ingurumena zaintzeko pausoak ematen

2015-06-01/05 Ingurumenaren egunaren aitzakitan, Aste Berdea ospatu zuen Udalak: Baratza balkoian tailerra egin eta merkatariei zuzendutako kartoiaren gaikako bilketaren kontzientziazioa landu zen.

Anjel Azpillaga eta Igone Campos Enarako ingurumen hezitzaileek gidatu zuten baratzaren tailerra. Landareak kokatzeko orientazio egokienari buruz aritu ziren, lorontzietan barazki eta lore aromatikoak nola landatu, eta abar.

Bestalde, beste bi hezitzailek herriko denda eta komertzioak bisitatu zituzten, kartoi hondakin guztiak gaika biltzeko kontzientziatzeko eta San Marko mankomunitateak duen bilketa zerbitzua ezagutarazteko.

Herri kirolak Zabaletako festak amaitzeko

2015-06-02/07 Asteartetik igandera, Zabaleta auzoko jaiak izan ziren. Haur eta helduentzak hamaika ekintza izan ziren eta igandean, ikusteko aizan zen herri kirolen ikuskizuna.

Pepe Enea baserriko idi eta zaldiaren demak ikusmin handia piztu zuen, zeinek plaza gehiago egingo 20 minutuko denboran 850 kiloko harria mugituz. Imanol Mujika eta Santi Telleriaren bost urteko zaldiak irabazi zuen azkenean, 50 plaza osatuta.

Ostean, Aimar Irigoien harri txiki eta handietako Euskal Herriko txapeldunak eta Beñat Telleria herriko harrijasotzaile gazteak erakustaldia egin zuten plazan bertan.

Babyauto ZRT Beltzak Euskadiko txapeldun

2015-06-06/07 Euskadiko txapeleta irabazi zuen 14 urtez azpiko Babyauto ZRT Beltzak taldeak Anoetako Miniestadioan. Arabako eta Bizkaiko txapeldunak izan zituzten aurrez aurre.

Denboraldi paregabea izan zen iazkoa gaztetxo lasarteoriatar eta zarauztarrentzat, Gipuzkoako txapeldunak izatea ere lortu baitzuten.

Ostadar SKTren festa handia

2015-06-06 Urtero moduan, festa handi batekin eman zion amaiera Ostadar SKTk, Okendo plazan lehenengo aldiz.

Arratsalde osoan zehar hainbat ekintza antolatu zituzten: hainbat kirol egin zituzten, eta barra bat ere jarri zuten, bertara hurbildu ziren herritarrei edariak zerbitzatuz. Era berean, zikiroa prestatu zuten plaza atzealdean, eta askok dastatu ahal izan zuten arkume gozoa. Afaririk ez dute egin aurten, baina sari-banaketa bai: Auzolan saria Peio Ormazabal Erketzeko kideari eman zioten eta Eneritz Bustori herriko kirolari onenarena. Jokalari jatorrenaren sariak ere jaso zituzten alor desberdinetako kideek.

Artista gazteen harrobia

2015-05-22/06-05 Brancussi akademiako ikasleen Mercero aretoan jarri zituzten ikusgai euren lanak, hamargarren urtez. 60 artistaren 82 lanekin osatu zuten erakusketa hori.

Hainbat herritar gerturatu ziren erakusketara, eta akademiako irakasle zein ikasleak gustura ziren horrekin. Ikasturtean zehar landutako ariketak praktikan jarri ostean eraman zituzten lanak Antonio Mercero gunera.

Azken egunean jai txikia egin zuten.

Elikadura jasangarria aztertzen

2015-06-10 Herriko bi ikastetxeetako gaztetxoak udal ordezkariekin bildu ziren pleno aretoan, Agenda 21 egitasmoaren baitan ikasturtean zehar landutakoari buruz hitz egiteko.

Elikadura jasangarriaren inguruko lanketa egin zuten Sasoeta eta Landaberriko ikasleek, eta gai hori jorratu ostean ateratako ondorioak partekatu zituzten udal ordezkariekin.

Ikasleek esandakoari adi entzun eta gero, Pablo Barrio jarduneko alkateak eta Bori Nogales hezkuntza zinegotziak eurak haurrak zireneko zenbait anekdota kontatu zituzten.

Palestinaren aldeko bideoa

2015-06-11 Ekainean eman zuen ezagutzera bere burua Palestinaren lagunak taldeak. Horrekin batera Israeli boikot egiteko bideo bat ere plazaratu zuten, herriko eragile eta elkarteekin batera grabatu zutena. 2014ko uztailean israeldarrek Gazan egindako sarraskia eta gero erabaki zuen herritar talde batek elkartzea eta aipatutako taldea sortzea.

Udal dantza eskolaren erakustaldi bikaina

2015-06-11 Udal dantza eskolako ikasleek erakustaldia egin zuten ikasturtea amaitzeko. Aretoa bete zuten

kima
Urte Berri on!!
Kale Nagusia 44 • Tel.: 943 366197
LASARTE-ORIA
Errepideko, BTT eta triatloiko txirrindulariaren biomekanika
masaje-lekua
Goyo Martin
Xabier Carbayeda

PSE-EEko Jesus Zaballos alkate

2015-06-13 Maiatzeko hauteskundeen emaitzen ostean, lau urte eta gero alkatetza berreskuratu zuen PSE-EE alderdiak.

Ekainaren 13an ospatu zen Udalbatzarrean zinegotziek haien aktak jaso zituzten eta alkate berria aukeratu zuten.

Bi alkategaik aurkeztu zuten bere burua, PSE-EEko Jesus Zaballosek eta EHBilduko Pablo Barriok. Zinegotziek bozka eman eta konta-keta egin ostean, ez zen ezustekorik izan, Jesus Zaballosek jaso zuen makila.

Azpimarratu zuen lasarteoriatar guztien alkate izaten saiatuko zela, eta gizarte zerbitzuak indartzea eta kirol instalazioak hobetzea direla legealdi honetako lan ildo nagusiak. Modu gardenean gobernatuko duela eta besteak beste, herritarrentzako zabalik izango du bere bulegoa astean bi egunetan.

guraso eta lagunek hainbat obra klasikoz gozatu ahal izan zuten: Heidi eta bere lagunak, Piratas del Caribe, 101 dalmatatxoak, eta abar. Era berean, zenbait konpositore ezagunen doinuak ere entzun zituzten, Bach eta Tchaikovsky-renak kasu.

Bidegorria, inauguratuta

2015-06-13 Lasarte-Oriako herritar talde batek sustatuta, herria Donostiarekin lotzen duen bidegorria ofizialki ireki zuten. Euskotreneko geltokian elkartu eta herritar batzuk bizikletaz eta beste batzuk oinez, bidegorri berria zeharkatu zuten jai giroan.

Errekaldera iritsitakoan, zinta jarri eta inaugurazioetan egin ohi den moduan moztu egin zuten. Sagardoarekin topa egin eta bidegorriarena aspaldiko aldarrikapena zela gogoratu zuten bertaratutakoek.

Iñaki Garcia garaile Squash txapelketan

2015-06-13 Iñaki Garciak irabazi zuen Squash Txapelketa Sozialaren XXVII. edizioa, Kinin Calvo 2013ko txapelduna garaitu ostean.

Kiroldegian jokatu zen final borrokatu hori; 15-13, 15-10 eta 16-17ko emaitzek luzapenera eraman zuten partidua, eta Garciak lortu zuen garaipena azkenean, 17-16.

Bestalde, Javier Serranok irabazi zuen kontsolazio finala, Dani Avila 5-15, 8-15 eta 12-15 garaitu ostean.

Endika Gartzia zortzigarren

'Tolosaldeko hiru tontorrak' mendi maratoian

2015-06-13 Herriko hainbat korrikalarik burutu zuten pasa den larunbatean 'Tolosaldeko hiru tontorrak' mendi maratoia. 42,7 kilometrokoa izan zen ibilbidea eta 460 korrikalarik hartu zuten parte guztira.

Horietako zortzi lasarteoriatarrak izan ziren. Endika Gartzia izan zen azkarrena; 4 ordu eta 36 minututan osatu zuen ibilbidea, zortzigarren postua eskuratuz.

Rocioko erromeria koloretsua

2015-06-13/14 Semblante Andaluz elkarteko kideek urteroko ohiturari jarriki, Rocioko Ama Birjinaren omenezko erromeria ospatu zuen. Larunbatean, eguraldi kaxkarrak hainbat emanaldi zapuztu zituen arren, igandean meza eta prozesioa egin ahal izan ziren

Ohi bezala soineko eta jantzi koloretsuak izan ziren nagusi atsobakar parkean. Bazkari herrikoia, dantza ikuskizunak, herrira gonbidatutako beste Andaluziar etxeetako taldeen emanaldiak, eta jaiari amaiera emateko, Ama Birjina agurtzeko salvea abestu ziren.

Dantzarekin amaiera

2015-06-09/14 Kukuka antzerki eta dantza eskolako haur, gazte eta helduek Ikasturtean zehar antzerki eta dantza ikastaroetan ikasitakoa erakutsi zuten Manuel Lekuona kultur etxean. Astean zehar, antzerkiko taldeen txanda izan zen. Ekainaren 16an, berriz, astari amaiera emateko, 'Dantzaz Blai' eguna izan zen. Bertan, dantza garaikidea, euskal dantza eta euskal dantza -sorkuntzako ikuskizunez gozatu ahal izan zen.

Ikasturte amaiera musikala

2015-06-16/17 Udal Musika eskolako lagunek bi kontzertu eskainiz eman zioten amaiera ikasturteari. Pianoa, biolina, flauta, gitarra... musikari gazte zein helduek ikasturtean zehar ikasitakoa erakutsi zuten guraso eta lagunen aurrean. Bakarka, binaka zein taldeetan aritu dira musikariak, euskal doinuak, filmetako abesti ezagunak zein melodia klasikoak eskainiz trebetasun handiz.

Atsobakarreko langileak haserre

2015-06-18 Ekaina hasieran akordio batera iritsi ziren CLECE enpresa eta Atsobakarreko langileak, baina hitzarmena sinatzen ez zutela ikusita haserre agertu ziren azken horiek. Gobernu aldaketa egon zela argudiatuz denbora gehiago itxarotea proposatu zuen enpresak, eta langileek ez zuten hori onartu, esan baitzuten CLECEk ez zuela izan inolako harremanik udal gobernu berriarekin.

Xirimiriren itxieraren aurka mobilizazioa

2015-06-18 Elkarteko kideek egindako deiari erantzunda, herritar ugarik hartu zuen parte elkarretaratzean. 'Xirimiri, aurrera' eta 'Ez, ez, ez, lapurretarik ez!' bezalako aldarrikapenekin elkartasuna eta babesa adierazi zioten Xirimiriri.

El Punto areto-txapelketako garaile

2015-06-20 El Punto tabernak irabazi zuen 2014ko herriko areto-futbol txapelketa, Txindoki penaltitan garaitu ostean. Interesgarria izan zen partida, joan-etorri eta aukera askokoa, nahiz eta markagailuak hori ez islatu.

Atsedenaldira husna iritsi ziren. Bigarren zatiko seigarren minutuan lortu zuen aurreratzea Txindokik, eta amaieratik gertu El Puntok banakoa jarri zuen falta jaurtiketa baten ostean.

40 minutuak amaitu ostean bi taldeak berdinduta zeudenez, penaltietan erabaki zen txapelketa. Tentsio askoko uneak izan ziren, eta El Punto tabernak lortu zuen irabaztea azkenean.

Kontsolazio finala berriz Trumoi tabernarentzat izan zen, Indauxi 4-1 irabazi ostean.

Jokalari onenaren saria Lander Martinek irabazi zuen, Francisco Iglesiasek atezain onenarena eta goleatzaile nagusia Ander Pecharroman izan zen.

Gerra zibileko aztarnak

2015-06-20 Herriko oroimen historikoa berreraiki nahian ari da Islada Ezkutatuak taldea, Gerra Zibil garaikoa batez ere. 1936ko irailean borroka gune bilakatu ziren Lasarte-Oria eta inguruak, eta hainbat aztarna topatu ditu taldeak Lasarte-Oria eta Usurbil arteko mendixketan.

Aurkikuntza horiek herritarrekin partekatu ohi dituztenez, Txaldatxur mendixkan topatutako hainbat aztarna eta lubaki zuzenean ikusteko txangoa antolatu zuen taldeak.

Okendo plazatik irten ziren, eta Hipodromoko zubia igaro ostean zubietarrekin bat egin zuten. Ordu erdiz ibili ostean iritsi ziren Txaldatxurrera.

Bando errepublikarraren defentsa lekua zela azaldu zuten Islada Ezkutatuak-eko kideek, eta bertan topatutako bala-zorroen arabera ez zutela armamentu astunik. Burruntza eta Andoain aldetik etorri ziren karlistei aurre egin behar izan zion defentsa postu horrek, eta bietan garaile atera ziren errepublikarrak.

Hautesontzi erraldoia erabakitzearen alde

2015-06-21 Gure Esku Dagoren historian beste mugarri bat jarri zuten ehunka lasarteoriatarrek Donostian, Gipuzkoako gainontzeko hiri eta herrietako biztanleekin batera hautestontzi erraldoia irudikatu baitzuten Anoeta estadioan.

Egun osoan zehar luzatu ziren ekintzak. Goizean oihal-katean hartu zuten parte, Urumea ibaia inguratuz. Koldo Mitxelenan geratu ziren goizean hara abiatu aurretik.

Horren ostean, Anoetara joan ziren denak, bertako txoznetan indarrak hartu eta kontzertuez gozatzeko arratsaldeko ekitaldi nagusia hasi aurretik.

17:30ean zuten hitzordua estadio barruan, baina herritar talde bat lehenago sartu zen bertara prestaketa lanetan laguntzera. Guztia prest utzi ostean, kanpoan gogotsu itxaroten ari zen jendea sartu zen estadiora hamar hatzeko bi eskuak altxa eta hautestontzi erraldoia hamaika itxaropenez betetzera.

Dantzaz Euskal Herriari bira

2015-06-20 Erketz EDT, Erketz Txiki eta Erketzeko lagunak taldeek ikasturte amaierako emanaldi eskaini zuten. Giro ederrean Euskal herriko dantza ezberdinak ikusteko aukera izan zuten Okendo plazara hurbildu ziren herritarrek.

Denboraldi amaierako festa Lasturren

2015-06-20 Lasturrera joan zen 14 urtez azpiko Babyauto ZRT Beltzak taldea, denboraldi amaierako festa ospatzera. Euskadiko txapelduna izan zen taldea 2014-2015 denboraldian eta lorpen hori gogotik ospatu zuten jokalari, entrenatzaile eta gurasoek.

Errotako piszinan bainatu ziren, lasterka egin zuten bigantxen aurrean eta parrillan prestatutako arkumea zein saiheskiak jan zituzten, sasoiari amaiera ezin hobea emanez.

Vespa eta Lambretta rally ikusgarria

2015-06-19/21 Euskal Autonomi Erkidegoko zein Estatuko hainbat hiri eta herrietatik etorritako hainbat motorzale izan ziren Lasarte-Orian bisitan, euren Vespa eta Lambrettekin batera. Hainbat erakustaldi egin zituzten herriko hainbat plazatan, Jaizkibelen eta Okendon esaterako.

Ahots alaiak jaien aurrekari

2015-06-21 Alboka Abesbatzak ikasturte amaierako kontzertua eskaini zuen Ama Brigitarren komentuan. Nazioarteko zein euskal doinuak interpretatu zituzten ikusleen gozamenerako. Lasarte-Oriako ereserkia ere abestu zuten, Iñigo Peñak moldatutako bertsio bat hain zuzen.

LOKEren ikasturte amaierako bazkaria

2015-06-21 LOKE klubak urteroko bazkaria egin zuen denboraldiari amaiera emateko. Araeta jatetxean elkartu ziren alor desberdinetako jokalari eta entrenatzaileak. Kide nabarmenenek sariak jaso zituzten eta zuzendaritza utzi zuten Manolo Morales eta Jesus Diezek aipamen berezia jaso zuten.

Uzta oparoa Gipuzkoako udako txapelketetan

2015-06-20/21 Buruntzaldea IKTko igerilariak fin aritu ziren Azpeitian eta Legazpin. Zilar eta brontzezko dominak, 36 marka pertsonal eta taldeko 11 errekor berri eskuratu zituzten bi txapelketetan.

San Joan suak erre ditu urteko gauza txarrak

2015-06-23 Andatza plazan ospatu zen aurtengo San Joan sua. Herritarrek ez zuten hutsik egin eta sua ikustera gerturatu ziren. Dantzariak udaletxe zaharretik abiatu ziren udal ordezkariekin batera kalejiran Andatzaraino. Iristean arin-arina, fandangoak eta San Joan zortzikoa dantzatu zituen Erketz taldeak Alboka eta Zero-Setteren doinuen laguntzarekin.

Horren ostean, Jesus Zaballos alkateak piztu zuen sua, herritarrek urteko gauza eta oroitzapen txarrak sutan erre eta ziklo berri bati ekiteko. Gaztetxoenek motxila hustu eta bukatu berri zuten ikasturteko apunteak bota zituzten sutara.

Biyak Bat elkarteko jokoen garaileei saria

2015-06-25 Biyak Bat elkarteko lagunek aurreko asteetan jokatu dituzten mahai eta mugimendu jokoen saribanaketa egin dute gaur arratsaldean.

Maialen Chourraut garaile Krakovian

2015-06-27/28 Herriko piraguistak Polonia konkistatu zuen uztaila hasieran, Munduko Kopako proba irabazi baitzuen K1 modalitatean. 90 segundo eta 91 ehunekoko marka egin zuen, urrezko domina kolkoratuz. Corinna Kuhnle austriarrak eta Ricarda Funk alemaniarrak osatu zuten podioa orduko horretan.

Eneritz Busto Espainiako txapeldun

2015-06-27/28 Martxoan pista estaliko Espainiako txapelketari aire librekoa gehitu zion Eneritz Busto LOKEko atletak. 14 segundo eta 18 ehunekoko marka egin zuen 100 metroko hesietako finalean.

Txapelketako markarik onena finalaurrekoetan egin zuen, kronometroa 13 segundo eta 99 ehunekotan geratuz eta uztailean jokatu zen Caliko atletismo mundialean lehiatzeko gutxienekoa eskuratuz.

Hiru urre Ibarbururentzat Euskadiko txapelketan

2015-06-27/28 Buruntzaldea IKTko igerilari junior eta absolutuek Gasteizko Mendizorrozan egin zuten igeri, Euskadiko txapelketan.

Hainbat domina ekarri zituzten bueltan etxera, eta Iñigo Ibarburuk eskuratu zituen horietako gehienak: hiru urrezko eta brontzezko bat. Txapelduna izan zen 100 tximeletako proban, junior zein absolutu mailan. 50 tximeletan ere urrea poltsikoratu zuen junior mailan, eta brontzea 50 libreetan, junior kategorian.

Xabier Elizegi laugarren Santurtzi-Bilbo zeharkaldian

2015-06-28 Santurtzitik Bilbora egin zuen igeri Xabier Elizegi herritarrak.

Hatz puntekin ukitu zuen Elizegik sailkapen orokorreko hirugarren postua baina gutxigatik ez zuen lortu; lau segundo lehenago bukatu zuen proba Xabier Gordoak. Dena den, bere kategorian hirugarren izan zenez, garaikurrarekin bueltatu zen etxera Xabier Elizegi.

Pili Bodegas triatleta Gipuzkoako txapeldun

2015-06-28 Pili Bodegas triatleta Gipuzkoako txapeldun izan zen Onditz memorialean. Pili Bodegas herritarra zazpigarren izan zen sailkapen orokorrean, eta lehena emakume gipuzkoarren artean.

San Pedro jai jendetsuak

2015-06-25/30 Sorgin Jaietako lagunek eman zieten hasiera jaiei. Langileria omendu nahi izan zutenaurtengoan eta txupina jaurti aurretik, herrira etorritako langileak gogoratu zituzten. Koadrila afaria eta gazteei zuzendutako lehen kontzertuak izan ziren gauean.

Ekainaren 26an, berriz, jai ofizialeko bi txupinak izan ziren. Aurten Ostadar SKT eta Biyak Bat elkartea izan ziren omenduak. Honela, haurren txupinean Ostadar SKTko saskibaloi taldeak izan ziren protagonista. Txupina bota ostean, haurrei zuzendutako egitarauari hasiera eman zitzaioan.

Arratsaldeko txupina baino lehen Sorgin dantzak hartu zituen herriko kaleak. Guztira 325 herritar izan ziren Sorgin dantzan parte hartzen. aurreikuspenak gainditu ziren.

Okendo plazan Biyak Bat eta Ostadarreko kideak prest zeuden pregoia eman eta jaietako txupina botatzeko. Honek eztanda egiarekin batera, jaietan murgildu zen herria.

Denetarik izan zen bai Sorgin jaiak, baita jai ofizialetan ere. Kirol ekintzak, Oriako jaitsiera, karta-jokoak, kale-ikuskizunak, haur parkeak, ekitaldi piroteknikoak, emanaldiak, kontzertuak, danborradak, Ostadar SKT eta Biyak Bati elkarteari aitortza, zezen suzkoak, sagardo dastatzea, bakailao txapelketa, sardina jana, bertsolariak, dantzaldiak... Zaragozana pirotekniako su-festak amaiera eman zien parranda eta jai egunei.

Uztaila

Udan primeran gozatzeko prest

2015-07-01 473 gaztetxok milaka abentura bizitu zituzten aurtengo udako txokoetan.

Ongi etorri beroa saharar haurrei

2015-07-02 Saharako hainbat haur etorri ziren herrira uda igarotzera. Zazpi lagun etorri ziren guztira.

Lasarte-Oriako Udalak eta udako txokoetako lagunek harrera berezia egin zieten gaztelekuan. Herriko gaztetxoek hiru dantza eskaini zizkieten ongietorri modura, Udalak oroigarriak eman zizkieten eta Porrotx pailazoak magia ikuskizuna eskaini zuen.

Sun Magoaren trikimailuak

2015-07-03 Herritar asko gerturatu ziren Okendo plazara Sun Magoaren trikimailuak ikustera, eta denak txundituta itzuli ziren etxera. Bere laguntzaileak eta beste hainbat objektu desagerrarazi zituen, eta zenbait ikusle ere igo zituen oholtza gainera haren ikuskizunean parte hartu zezaten.

Txindoki garaile Mossoren oroimenezkoan

2015-07-04 Txindoki tabernak irabazi zuen XXIX. Mossoren oroimenezkoa, Trumoi taberna finalean 3-1 garaitu ostean. Borrokatua izan zen norgehiagoka, emozio askokoa. Trumoik ireki zuen markagailua, Asier Sanchezen golarekin. Txindokik amore eman ez eta bigarren zatian irauli zituen partidua eta markagailua, gerora garaikurra eman zioten hiru gol eskuratuz.

Kataluniako kanta eta dantzak Okendon

2015-07-04 Gironako Lladó herriko lagunak izan ziren herrian, iaz hemengo hainbatek (Xumela abesbatzakoak barne) egindako bisitari erantzunez. Bertako abesbatzak eta Xumelako kideek emanaldi polita eskaini zuten Okendo plazan, euskal eta kataluniak kulturak uztartuz.

Lokalen eraustea geratuta

2015-07-07 Apirila amaieran San Marcial eta Uzturre plazetako etxe arteko lokalak erausten hasi zen, baina geratu egin behar izan zituzten lan horiek, amiantoa aurkitu baitzuten. Material arriskutsua izanagatik Eusko Jaurlaritzari proiektu zehatz bat aurkeztu behar izan zion Udalak.

Zezenen aurrean lasterka

2015-07-07 Iruñean ospatzen dira San Ferminak, baina herriko udako txokoetako gaztetxoek ere jantzi zituzten arropa zuriak eta zapi gorria, zezen suharren aurrean lasterka egiteko.

Egurra arte bihurtuta

2015-07-09 Egurrarekin egindako koadro, armarri, kutxa, erloju eta abarrez osatutako erakusketa eraman zuen Zurmailu elkarteak Antonio Mercero aretora.

Zinema Okendo plazan

2015-07-09 Lasarteoriatarrek pantaila handia deiturikoaz gozatu dute udara honetan Okendo plazan. Lasarte-Oriako Udala eta Okendo zinema taldea aritu ziren elkarlanean, eta zenbait film proiektatu zituzten plazan: 'La vida inesperada' eta 'Lucy' hain zuzen.

Belaunaldi ezberdinak kantuan

2015-07-10 Lasai ederrean egon daitezke Xumelako kideak, etorkizun oparoa izango baitu abesbatzak datozen urteetan. Belaunaldi desberdinak aritu ziren kantuan, abesbatzako kideak Udako txokoetako gaztetxoekin batera aritu baitziren kantuan.

'Ixil-ixilik dago', 'Jon Braun', 'Land Roberra', 'Epoitaitaie' eta 'Sorgina pirulina' bezalako klasikoak interpretatu zituzten.

Dantza eta pertsonaren bilakaera

2015-07-10 Herritarrak aho zabalik utzi zituen diziplina anitzetako 'Divenire' dantza ikuskizunak. Breakdance, akrobaziak... dantzariek bizitako bilakera erakustea zen ikuskizunaren xede nagusia, norbanakoei zein taldeari gertatutako gauzak islatuz. Hip-hop doinua eta konposizio nahasketa erabili zuten horretarako. Modu ikusgarrian taularatu zituzten horiek denak ikusleak harrituta utziz.

Iraia Iparragirre Realera

2015-07-14 Realak Iraia Iparragirre 20 urteko herritarra fitxatu zuen udaran. Añorgan eman zituen azkeneko lau urteak eta Ostadar SKTn eman zituen lehen urratsak. Emakumezkoen Bigarren mailan hainbat partidatan aritua da Iparragirre, eta aurtengoan maila gorenean ari da herritarra.

Manttangorri Lurraldebus txartelean sartzeko pausoa

2015-07-14 Uztaileko ohiko udalbatzarrean Gipuzkoako Garraioaren Lurralde agintaritzan integratzea onartu zuten alderdiek. Gauzak horrela, merkeagoak dira bidaiak, Lurraldebus txartelarekin ordaindu baitaitezke bidaiak.

Hamaika kolore, kantu eta jolas Okendon

2015-07-16 Gogotik gozatu zuten haur, gazte eta gurasoek Okendo plazan, Eidaberen 'Sardina freskue' ikuskizunarekin. 'Kale antzerkia bultzatuz' egitasmoaren baitako bigarren obra izan zen.

Euskal Herriko festak Lasarte-Oriako kaleetan

2015-07-17 Udako txokoetako haurrek Euskal Herriko hainbat festa omendu zituzten kultur etxean. San Ferminak, Mari Jaia, Zeledon eta beste hainbat irudikatu zituzten herriko kaleetan barrena egin zuten desfilean. Okendo plazan bildu ziren desfilearen ostean, koreografia bat dantzatu eta konfeti artean jolastuz.

Akrobazien unibertso txikia

2015-07-17 Mota guztietako objektu zaharrekin euren unibertso propioa eraiki eta akrobazien bitartez gatibatu zituzten ikusleak 'Txatarra' obraren antzezleek. Umorea, antzerkia, sentimenduek eta beste hainbat osagaik ikuskizun borobila osatu zuten Okendo plazan.

Artisautza plazara

2015-07-19 Eguraldi ona lagun, giro ederrean ospatu zen Santa Anako XXXI. eskulangintza azoka. Elikadura arloko ia 60 postu jarri zituzten, Antonio Mercero zein Okendo plazetan. Hainbat jende gerturatu zen postuetara, bertako produktuak ikusi eta erostera.

Urtero moduan, Cesar Bozal artisauak eskuz egindako labana oparituz sukaldari bat omendu zuen. Luis Irizarrena izan da ohorea aurtengoan.

Anarkista nafar baten memoriak

2015-07-23 Lucio Urtubia 84 urteko anarkista historikoak hitzaldia eskaini zuen herrian, Xirimiri elkarteak antolatuta.

Haren bizitzaren pasarte ezagunez jarduteaz gain, behin eta berriro

Oriatarren egun handia

2015-07-16 Urtero lez, Karmengo amaren eguna ospatu zuten oriatarrek. Aurtengoa 75. urteurrena izan da. Motibo horregatik On Ramon Uribe-Etxebarria apaiza omendu zuten baita ere.

Villabonako Solano taldearen trikitilariek alaitu zuten auzoa goizean, burruhandiekin batera.

Haurrek gogotik gozatu zuten haientzat prestatutako tailerretan. Globoflexia, apaintzeko objektua edo pultserak egin zituzten Oriako kapera ondoko plazara hurbildu ziren gaztetxoek.

Ostean, meza nagusia izan da eta oriatarrek kapera bete zuten, izan ere, ospakizun bikoitza baitzuten, haien zaindariaren eguna eta kaperaren 75. urteurrena.

Meza amaitzean, mokadu bat jan zuten oriatarrek Plazido Muxika plazan.

Horren ostean, denak elkarrekin abiatu ziren 'El Jardin' jatetxera, bazkari herrikoia egitera bertan.

Arratsaldean, Sorgin dantzako kideak izan ziren Oria auzoan dantzan, eta 20:00etan auzotarrak izan ziren gorputza astindu zutenak Ibai Berriak taldearen eskutik Brunet-Enea parkean.

nabarmendu zuen ekiteko garaia dela, gizartea aldatzekoa, eta gazteak animatu zituen zeregin horiek aurrera eramatera.

Udako txokoetako kideen emanaldi koloretsua

2015-07-24 Euskal Herriko hainbat ospakizun eta pertsonaia ezagun irudikatuz, festa erraldoia egin zuten udako txokoetako kideek Manuel Lekuona kultur etxean. San Ferminak, danborrada, Mari jaia, Zeledon, Miel Otxin, zanpantzarrak... Inork ez zuen hutsik egin hitzordura, ezta gaztetxoen guraso eta lagunek ere.

Haur talde bakoitzak pertsonaia bat aukeratu, horretaz mozorrotu eta kultur etxeko oholtzan koreografia bat dantzatu zuen ikusleen gozamenerako.

Udako denboraldia Hipodromoan

2015-07-26 Lasaitu ederra hartu zuten turf-zaleek Donostiako Udalak zaldi lasterketen udako denboraldia egingo zela iragarri zuenean. Zortzi jardunaldi prestatu zituzten uztailean hasi eta irailera bitarte. Casino Kursaal sariak ireki zuen egitaraua, eta Donostia sariak itxi.

Santa Ana eguneko ospakizunak

2015-07-26 Brigitarren komentuko mezarekin hasi zuten aurtengo Santa Ana eguna. Erketzeko kideek dantza egin zuten karkabaren aurrean eta hamaiketako herrikoia egin zuten gero, usadioari jarraituz.

Arteaga eta Begiristain Santa Ana pala txapelketako txapeldun

2015-07-26 Jon Begiristainek eta Xabier Arteagak osatutako bikoteak irabazi zuen aurtengo Santa Ana pala txapelketa. Jon Pello Artetxe eta Xabier Etxezarreta izan zituzten aurkari eta 35-16 hartu zituzten mendean. Luze jokatu zuten bi bikoteek, eta aurrelari zein atzelariek lan ederra egin zuten. Majo gozatu zuten ikusleek hormabiko, zabalerako jokaldi zein dejadekin. Jon Begiristain izendatu zuten finaleko jokalari onena.

Era berean, urtean zehar emandako laguntzagatik oroigarria jaso zuen Aldaz Hortz Klinikak. Bestalde, hirugarren postua Xenki Astiazaran eta Iñigo Arluziagak eskuratu zuten.

Euskal Herriko mendi ibilbideak liburuan

2015-07-27 Herriko Jesus M. 'Txusma' Perez herritarrak Euskal Herriko mendi ibilbidez jositako liburua argitaratu zuen. Zehatzago esanda, 57 ibilbide jasotzen ditu bilduma horretan. Horietatik bi Lasarte-Oriatik hasi daitezke, Azkorte eta Santa Barbarako ermitena eta Zubietako haranarena hain zuzen.

Batukada festa Sasoeta ikastetxean

2015-07-27 Hainbat perkusio instrumentu ezagutu eta jotzen pasa zuten goiza udako txokoetako gaztetxoek. Sasoeta ikastetxean aritu ziren horretan. Joko batzuk egin zituzten beroketa gisara, eta batukada festa ospatu zuten denek batera.

Itsasoko izarrak dantzan

2015-07-28 Itsasoa eta haren freskotasuna eraman zituzten udako txokoetako gaztetxoek Okendo plazara. Kirmen karramarroak egin zien harrera, eta izar txikien taldeak aurkeztu zituen gero.

Txikiek hilabetean zehar ikasitakoa dantza erakutsi zuten, dantzaren errimoa bikain jarraituz.

Pintxo dastaketa Okendo plazan

2015-07-29 Uztaileko abenturekin aurrera jarraitu zuten udako txokoetako haurrek eta sukaldean trebeak direla erakutsi zuten Okendo plazako arkupeetan. Pintxo ezin goxoagoak prestatu zituzten begiraleek emandako osagaiekin. Ondoren euren artean banatu zituzten dastatzeko, eta kaletik zebiltzan herritarrei ere eskaini zizkieten euren jakiak.

Apar artean uztaileko txokoei amaiera

2015-07-30 Okendo plazan apar festa erraldoia eginez bukatu zuten uztaileko txanda Udako txokoetako gaztetxo eta begiraleek. Hilabetez hamaika jolas, kantu eta abenturatan murgildu ostean, apar artean esan zioten agur elkarri.

Michelingo kirol instalazioen afera

2015-07-30 Ostadar SKT elkarteko ordezkariek eta oposizioko hiru alderdi politikok prentsaurreko bateratua eman zuten Michelingo kirol instalazioen atarian, Udal gobernuari eskatzeko horiek ireki zitzala, Ohorezko Erregional taldeak bertan entrenatu ahal izateko abuztuko lehenengo astean. Ezohiko kirol batzordea deitu zuten abuztuko lehen astelehenerako, baina ez ziren adostasun batera iritsi eta taldeak Usurbilgo Haranen ekin zion aurredenboraldia prestatzeari. Bien bitartean, oposizioko laugarren alderdia den PPk azken unean gainontzeko alderdiekin batera ez agertzea erabaki zuen..

San Inazio jaietako ospakizunak Basaundi auzoan

2015-07-31 Oriatarrek Karmengo Amarekin egin moduan, Basaundiko auzotarrek Loiolako San Inazio Gipuzkoako patroiaren eguna ospatu zuten hileko azken egunean.Festa gauera arte luzatu zen Ibai Berriak taldearen dantzagarrien eskutik.

Bando, Bando alkateak esan do!

2015-07-26 Jendeak hartuta zituen eserlekuak urteroko Santa Ana parodia hasi zenerako. Dena dela, antzerkiarekin hasi aurretik Concha Arraztio herritarra omendu zuten, urtetan behartsuenen alde egindako lanaren aitortza gisara. Lierni Rekondok pare bat bertso abestu zizkion omenduari.

Beste behin ere gogotik egin zuten barre herritarrek parodiako antzezleen ateraldiekin. Okendo plazari izena aldatu eta Syntagma izango zenaren alkatearen bandoa, 'Rambo' herritar ezaguna ere oholtza gainean izan da, beste hainbatetkin batera.

Aurten, Brunette Troluzzi eta Maximiliana Iruzurtini akusatu dituzte, eta urtero legez, ezin izan zuten suaren garretatik libratu, eta infernura kondenatuak izan ziren.

Abuztua

Maialen Chourraut, sasoi betean

2015-08-05 Forman iritsiko da Maialen Chourraut herriko piraguista Londresko Munduko txapelketara.

Abuztu hasieran Slalom titulua irabazi zuen Orthezko kanalean. Sei jardunaldiz osatutako ligaxkan gailendu zen; 4 urre irabazi zituen, zilar bat eta brontze bat.

Bestalde, Pauko kanalean ere hartu zuen parte, Munduko Kopako azken proban. Bakarka zazpigarren postuan amaitu zuen, baina taldeka podiumeko lehen kaxoira igotzea lortu zuen, Irati Goikoetxea eta Marta Martinezekin batera.

Raul Gomez Margallo garaile Ergobiko krosean

2015-08-23 Herriko korrikalariak ez zuen atseden hartu udan zehar, eta podiumeko maila gorenera igo zen Ergobiko krosean, abuztuaren 23an. 32 minutu eta 56 segundo behar izan zituen Margallok ia 10 kilometroko ibilbidea osatzeko

Xabier Elizegi hirugarren Manhattanen

Pau Buera

2015-08-03 Aurrean jartzen zaizkion erronkak gainditzen jarraitzen du Xabier Elizegi distantzia luzeko igerilari herritarrak.

Abuztu hasieran MIMS Manhattan Island Marathon Swim proba entzutetsuan hartu zuen parte.Ez hori bakarrik, lehenengo hiruren artean amaitzea lortu baitzuen 7 ordu eta 28 minutuko denbora eginez. Mathew Fernandez australiarra gailendu zen Manhattanen, 7 ordu eta 17 minututan geratuz kronometroa. Jaime Lomelin mexikarra sartu zen helmugara ondoren, 7 ordu eta 25 minutuko denborarekin.

Abuztuan txokoetan primeran

2015-08-30 Herriko gaztetxoek abuztuan ere primeran pasa zuten euskaraz, udako txokoetako kideekin. 3 eta 12 urte arteko 56 haur aritu ziren bigarren txanda horretan, 6 saharar tartean.

Ez zuten aspertzeko aukerarik izan, herriko festa guztiak errepasatu baitzituzten hilabete osoan zehar. Besteak beste, San Joan sua, Euskal Jaiak, Zabaletako Jaiak, San Pedroak, Karmenak eta Santa Ana.

Azkeneko egunean gurasoekin batera ospatu zuten azken festa handia. Bi dantza eskaintzeaz gain, haurrek prestatutako pintxo goxoak dastatu zituzten denek elkarrekin.

Arteaga eta Erasun garaile Antiguon

2015-08-30 Axier Arteaga herritarrak Antiguoko pilota txapelketa irabazi zuen senior kategorian, Jon Erasun zizurkildarrarekin osatuz bikotea. 10 eta 22 hartu zituzten mendean Unai Laso nafarra eta Daniel Murgiondo azpeitiarra.

Txapelaz gain, finaleko pilotari onenaren saria ere irabazi zuen Arteagak.

JOSTEN TREBATU NAHI DUZU?
HEMEN DUZU AUKERA! TTAKUN KULTUR ELKARTEAK **"TITARE" JOSKINTZA IKASTAROA** ANTOLATU DU:

NOIZ? Ostegunero: 15.00etatik 17.00etara, urtarrilaren 7an hasi eta ikasturte amaiera arte
NON? Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroan
PREZIOA: Saioko 1€
IZEN-EMATEA eta INFORMAZIOA kultura@ttakun.eus/943 37 14 48
PARTE-HARTZAILE KOPURUA: Gehienez 16

*Ikastaroa euskaraz izango da.

Kultur Elkartea Ttakun

adats
ILE-APAINDEGIA
2016 zoriontsua opa dizuegu!
Mugikorra: 600 52 39 88
Geltoki kalea 3, LASARTE-ORIA

AINHOA TABERNA
URTE BERRI ON!
Kale Nagusia 46 - Lasarte-Oria
Pintxoak Razioak ... ZATOZ DASTATZERA!

Iraila

Konponketak herriko eskoletan

2015-09-01 Herriko eskoletan hainbat konponketa egiteko erabakia hartu zuen Udalak, Jesus Zaballos alkateak eta zenbait zinegotzik horiek bisitatu ostean.

Sasoeta eskolako fatxadan egingo dituzte horietako batzuk, eta Zumaburuko eraikinaren fatxada eta kubierta birgaitzeko proiektua udaleko bulego teknikoak burutuko du. Aipatutakoak lehentasunezko inbertsioak direla nabarmendu zuen alkateak.

Horrez gain, jakinarazi zuen brigadako langileek jolas lekuetan hainbat konponketa eta garbiketa lanak egingo zituztela, borratutako marrak berriro margotzea eta saskiak eta porteriak berritzea.

Ikasturte hasiera Andre Joakina Enean

2015-09-04 Guztira 0 eta 2 urte arteko 58 haurrek ekin diote ikasturteari herriko haur eskolan. Udal ordezkariak bertan izan ziren, eta udan zehar bertan egindako hainbat hobekuntza azaldu zituzten. 30.000 euro inbertitu ditu udalak; lurra aldatu du, haize kortinak jarri, goiko patioan toldo bat ipini eta erorketak saihesteko zoru biguna jarri du. Etorkizunean ere diru gehiago inbertituko duela jakinaraz izuen, leiho berriak jarri nahi baitituzte Andre Joakina Enean.

Ondo ibili egitasmoa martxan

2015-09-05 'Ondo Ibili' egitasmoak urtebete egin du jada eta aurtengoan ere martxan dago. Astero-astero ibilbide desberdinak egiten dituzte herriko adineko pertsonek, boluntario talde batek gidatuta. Ekainera bitartean, ostiralero ateratzen dira paseatzera denak elkarrekin, goizeko hamaiketan, eguraldia txarra izan ezean beti ere.

Bidegorri zati berria Atsobakarren

2015-09-06 Lasarte-Oriako bidegorri sarea osatzeko pausua eman zen Garaikoetxea eskola eta Urbil merkatalguneko biribilgunea batuz. Obra horri esker, herriak 6,2 kilometroz osatutako sarea dauka orain, eta Atsobakarreraino iristen den Oria ibaiko ardatza amaitua dago.

Jantoki berria Garaikoetxean

2015-09-06 Landaberriko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek Pablo Garaikoetxea erakineko jantoki berria estrenaitu dute aurtengo ikasturtean. 150 haurrentzako edukiera dauka jantokiak, eta erabilera anitzekoa da: solairu bakarreko bolumen bakar bat, kanpo-isolamenduz estalitako zu ijeztuko xaflen bidez eraikia, eta zurezko listoiez estalia.

Udala kaleratzeen aurka eta Siriako errefuxiatuen alde

2015-09-08 Ikasturteko lehenengo ohiko udalbatzarrean Lasarte-Oria hainbat herrialdetako errefuxiatuen aterpetzaile gisa deklaratu zuten korporazioko 17 kideek. PSE-EEk aurkeztu zuen mozioa eta EH Bildu eta LOAD alderdiek emendakinak egin ostean onartu zuten. Plan bateratu bat egitea galdegin zien Eusko Jaurlaritzari, Foru Aldundiari eta EUDEL-i, eta Espainiako gobernuari berriz malgutasunez jokatzea.

Bestalde, Bozeramaileen Batzarrean aurrez onartutako kaleratzeei buruzko mozioa aurkeztu zen. Udalak kolaboratzeko konpromisoa hartu zuen, eta baita herrian gerta zitezkeen kaleratzeak bukatzeko exijitzearena.

Siriar errefuxiatuei laguntzeko urratsak

2015-09-09 Udalbatzarrean errefuxiatuen aterpetzaile izatea onartu ostean, Jesus Zaballos alkateak jarraitu beharreko urratsen berri eman zuen. Lehenbizi, jaso beharreko kopuru zehatza jakin ostean, Bozeramaileen Batzarra deituko du, neurri zehatzak erabakitzeko.

Adierazi zuen udalaren esku dauden zerbitzu guztiak eskainiko dituztela, etxebizitza sozialak, tutelatuak zein Atsobakarreko egoitzan plazak dependenteak badira… Bestalde, era guztietako premiei erantzuteko konpromisoa ere adierazi zuen Zaballosek.

Lasarteoriatarrei ere eskatu zien laguntza emateko ahal zuten neurrian, bai ekonomikoa edo bestela errefuxiaturen bat hartzeko tokia edukiz gero aukera hori eskainiz.

Extremaduraren festaren hasiera

2015-09-12 Bandera altxatzearekin lehertu zen festa Extremadura etxean. Ekitaldi sinboliko horrek eman zion hasiera hiru eguneko etengabeko festari. Bandera egoitza kanpoaldean jartzearekin batera Extremadurako ereserkia abestu zuten ekitaldira bertaratutakoek, zenbait udal ordezkarik barne.

Horren ostean, kaldereta gozoa dastatu zuten 80 bat jatunek, eta gauean 'ExtremaYDura' rock jaialdiaz gozatzeko parada egon zen

Danborrada Miranda de Ebron

2015-09-13 ATLO Danborrada Elkarteko kideek esperientzia ahaztezina bizitu zuten Miranda de Ebro-ko (Burgos) jaietan. Udalak gonbidatuta bertako kaleak girotzen aritu ziren, ordubete inguruko saioa eskainiz. 110 bat lagun abiatu ziren Burgos aldera bi autobusetan eta Felix Telleriak gidatuta Sarriegiren doinuekin alaitu zituzten Mirandako kaleak.

Murua eta Alberdi Lasarte-Oriako parroko berriak

2015-09-14 Hamazazpi urteren buruan, Lasarte-Oriako elizbarrutiari agur esan dio Xabier Andonegi apaizak aurten; Juan Luis Murua Arantzazuko Amaren elizako parrokoa eta Aginagako parroko Ibon Alberdik batera hartu dute haren lekukoa. Muruak 20 urte daramatza herrian apaiz lanak egiten, eta Alberdik 6 Usurbilgo Salbatore elizako eta Aginagako San Frantziskoko elizan, Errenterian 10 urtetan ibili ostean.

Xabier Andonegi apaizak San Pedro elizan meza emanez esan zuen agur, herrian 17 urte eta eliza horretako parroko gisa 8 igaro ostean. Lasarte-Orian oso maitatua sentitu dela azpimarratu zuen, eta igandero mezetara joaten diren herritarrei haren eskerrik beroenak eman zizkien.

Udako denboraldiaren amaiera

2015-09-16 Donostia saria jokatzearekin batera amaitu zen Hipodromoko udako denboraldia. Uztaila eta iraila bitartean zortzi jardunaldiz gozatu zuten turf-zaleek, sari entzutetsu eta handiak tarteko: Urrezko Kopa, Donostia saria, Gipuzkoako Foru Aldundia saria… Beste udara batez turf-zale, turista, apustulari eta jockey-en bilgune izan zen Hipodromoa.

Hastear den urte honetan 100 urte beteko ditu eraikin historiko horrek.

Mugikortasun Astea herrian

2015-09-18 Urtero moduan, hainbat ekintza antolatu zituen udalak Mugikortasun Astearen baitan. Esaterako, Kale Nagusia itxi zuten bertan joko desberdinak egin ahal izateko. Denetarik izan zuten aukeran haur eta gaztetxoek: Segway ibilbidea eta bide hezkuntza zirkuitua, herri kirolak eta beste hainbat.

Bizikletaren eguna ere arrakastatsua izan zen, hainbat gaztetxo animatu zirelako haientzako espreski prestatutako ibilbideak egitera, motza zein luzea. Begiraleen laguntzaz burutu zuten paseotxoa. Arrakastatsua izan zen baita ere bigarren eskuko azoka, herritar asko hurbildu baitziren bertan eskaini ziren pagotxak ikusi eta zenbait kasutan erostera ere bai.

Atsobakarreko egoitzaren afera konpondu ezinik

2015-09-18 Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakunde Publikoen Zuzendari Elena Basagoitik Atsoba-

Omenaldi beroa Porrotxi

2015-09-18 Euskal Herri osoan barrena irribarreak eta maitasuna banatzen ditu Joxe Mari Agirretxe 'Porrotx' pailazo ezagunak, eta herritarrek egin zioten omenaldian hark emandako horiek denak bueltan jaso zituen.

Dorre Parkean bildu ziren herriko hainbat eragile, hilabete batzuk lehenago margotutako paretan. Hunkigarria izan zen oso aitortza, bihotzetik eginikoa. 'Maite zaitut' abestiak ireki zuen; Xumela abesbatzak jarri zuen musika eta Kukukako dantzariek koreografia. Ostean, jendartetik atera ziren Jon Maia eta Unai Muñoa bertsolariak, bertso bana abestera. Herritarrek pailazoen errepertorioa primeran ezagutzen dutela erakutsi zuten, 'Epo i tai tai e' abestia primeran interpretatu baitzuten.

Extremaduraren asteburu handia

2015-09-15 Asteburu osoan ekintza ugari egin zituzten Extremadurako astea omentzeko. Larunbatean gaztetxoenek marrazketa lehiaketan hartu zuten parte eta helduek 'Los Ecos del Monfragüe' koruak girotutako mezara joan ahal ziren.

Arratsaldean futbolin txapelketa jokatu zen Buggy tabernan, eta musean aritu ziren Extremadura etxean bertan. 'Raices y Brotes' taldearen emanaldiaz gozatzeko aukera ere egon zen Jaizkibel plazan.

Gauean Udal ordezkariekin batera afaldu zuten, eta ondoren, 'Ibai Berriak' taldeak herritarrak dantzan jarri zituen.

Igandean 'Zambra' dantza taldearen ikuskizuna izan zen, bolo eta tute lehiaketen aurretik. Jaialdiari banderaren jasotze-ekitaldiarekin eman zioten amaiera.

kar zaharren egoitzaren egoera ezagutu zuen, bertan bildu baitzen Jesus Zaballos alkatearekin. Basagoitik jakinarazi zuen Aldundiak ez zuela hartuko bere gain Atsobakarren kudeaketa, eta horren aurrean alkateak adierazi zuen akordio batera iritsi ezean epaitegietara joko zuela Lasarte-Oriako Udalak. 2001ean hasi zen liskarra bi erakundeen artean; ordutik gaur egunera arte udalak berak kudeatu du erresidentzia, eta zehaztu du tarte horretan 10 milioi euro inguru galdu dituela berea ez den funtzio bat betetzeagatik.

Hasi da herriko areto-futbol txapelketa

2015-09-18 Iraila erdialdean hasi zen Ostadar SKTk antolatutako areto -futbol txapelketa. 13 taldek eman dute izena guztira. Talde kopurua aldatu ez baden arren, izenak eta kideak bai. Txapelketako historiko batek, Buenetxea tabernak alegia, erabaki zuen aurtengo edizioan ez parte-hartzea. TSST izeneko taldeak bete du hutsunea.

Antolatzaileen erronka nagusia txapelketa herrian are gehiago zabaltzea da, "garai batean finalaren egunean zegoen festa-giro hori berreskuratu nahi genuke, gaur egungo belaunaldi berriei erakutsi zer nolako festa zegoen orain dela urte batzuk".

El Punto tabernak irabazi zuen txapelketa iaz, Txindoki penalti jaurtiketetan garaitu ostean. Ikusteke dago lekukoa nork hartuko duen

Auzoa eta lana elkarbizitzarako

2015-09-19 Ganbo Iturri elkarteak beste hitzaldi bat antolatu zuen 'ElkarBizi' egitasmoaren baitan. Orduko horretan Enrique Ayerberi 'Etor-Ostoa' editorialeko zuzendaria egon zen elkartearen egoitzan. Joxean Rekondok gidatu zuen 'Euskal seneko balioak elkarbizitzaren alde' izeneko solasaldia.

Ane Labaka bigarren Beasainen

2015-09-20 Ane Labaka herritarra fin aritu zen Gipuzkoako Bertsolari txapelketako final zortzirenetan. Beasainen aritu zen kantuan, eta 444 puntu biltzea lortu zuen, Jon Maia irabazleak baino 12,5 gutxiago. Saio bakoitzeko irabazleek zuzenean lortu zuten final laurdenetarako sailkatzea eta gainontzekoak sailkapen orokorreko puntuazioen zain egon behar izan zuten. Sailkapen orokorreko hirugarren postua erdietsi zuen Labakak, hurrengo faserako aise sailkatuz.

Indie doinuak nagusi Okendo plazan

2015-09-21 Indie musikak hartu zuen Okendo plaza, Mary May & The Muppets taldearen emanaldiarekin. Hainbat herritar gerturatu ziren kontzertuaz gozatzera, Marvin Gaye edota Amy Winehouseren gisako abeslari ezagunen zenbait abesti tarteko. Emanaldi horrekin eman zion amaiera Udalak aurtengo Kultur Kale zikloari.

Ametsak mundura ezagutarazten

2015-09-26 Katxiporretako lagunek 'Zuhaitzetan itsasora goaz' eta 'Jalgune. Pausoka bagoaz aurrera' erreportajeen emanaldi berezia egin zuten Manuel Lekuona kultur etxean, 'Txo, Mikmak txikia' DVDaren argitalpenarekin lotuta. Ekitaldira hurbildu ziren herritarrek ederki pasa zuten Pirritx, Porrotx eta Marimototsen abentura berriak ikusiaz eta era berean Albaola, Surfrider zein Jalgune egitasmoen berri izan zuten.

Lasarteoriatarrak pagotxen bila

2015-09-27 Soinekoak, zapatak, osagarriak, erlojuak, haurrentzako arropa, informatikako produktuak... herriko hamar dendetan produktuak merkeago aurkitzeko aukera izan zen herrian. Izan ere, Aterpea Merkatari elkarteak antolatuta, Stock azoka burutu zen. Zenbait herritar gerturatu zen bertara.
Aurtengoan izan zen berrikuntzarik: denda bakoitzak bere lokalean karpa bat jarri zuen, beherapena zuten produktuak eskainiz.

Arteaga garaile Iruñean

2015-09-27 Axier Arteagak txapel bilduma handitu zuen Iruñean. II. Polque Altzariak txapelketa irabazi zuen Jon Erasun zizurkildarrarekin batera. Etxebarria II.a eta Mariezkurrena hartu zituzten mendean 22-17. Partidu borrokatua izan zen, eta hamazazpina joan ostean Arteagak eta Erasunek esperientzia baliatu zuten irabazteko.

Lasarte-Oriako aurrelariak lan ederra egin zuen 13 tanto eskuratuta.

Garaikurraz gain, txapelketako jokalari osoena eta jatorrena izateagatik Zilarrezko San Fermin saria jaso zuen Joseba Asiron Iruñeko alkatearen eskuetatik.

Jalgune

Familia eta lagun
Lasarte-Oriatarrei, Eguberri onak
opa dizkizuegu eta 2016. urtean
zuen ametsak bete daitezela!

URTE BERRI ON!

Bekokale bidea 1, 2. solairua • LASARTE-ORIA

Urria

ITA gardentasun txostenaren emaitzak

2015-10-01 Transparencia Internacional España erakundeak Lasarte-Oriako Udaleko web orrialdea aztertu eta gardentasun ikuskaritza egin zuen, udaletxeak berak eskatuta. 80 adierazlez osatutako zerrenda baten arabera ikuskatu zuen Udalaren web orrialdea; 13 puntu eman zizkion.

Astebeteko ospakizunak aurretik

2015-10-01 Biyak Bat nagusien egoitzaren sarreran bandera jartzearekin hasi zituzten herriko nagusiek astebeteko ospakizunak. Irekiera ekitaldiaren ostean Isla Plazara abiatu ziren adinekoak, bertan prestatuta zeuden jokoetan parte hartzera. Primeran pasa zuten igela, toka zein botean jokatzen.

Nagusien omenaldia, ekintzaz betetako astea

2015-10-01 Igandean bazkari legea egiteko elkartu ziren herriko 400 bat adineko pertsona, Michelingo pilotalekuan. 80 urte bete zituzten gizon-emakumeek oroigarriak jaso zituzten, urtero moduan. Bapo bazkaldu ostean, Ibai Berriak taldearen eskutik gustura egin zuten dantza hainbat jatunek.

-

Jalgi berriz martxan

2015-10-02 Jalgi Kafe Antzokiak ateak zabaldu zituen berriro ere, hilabete gutxi batzuren ostean. Jende asko hurbildu zen irekierara eta bertsolari zein Xumelakoen kantek girotu zuten. Hainbat berrikuntza egin dira lokalean eta kudeatzaile berria izango du aurrerantzean ere.

Areto-futboleko pista, albotik itxita

2015-10-02 Eguraldi txarraren ondorioz arazoak izaten ziren Michelingo areto-futboleko pista erabiltzeko, eta Udalak lonazko itxitura bat instalatu zuen urik sar ez zedin. 8.606,73 euroko aurrekontu aizan zuten lanek.

Unai Muñoa laugarren Elgoibarren

2015-10-03 Unai Muñoak Elgoibarren jokatu zuen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final zortzirenak eta laugarren postua eskuratu zuen, 407,5 punturekin.

Udazkenari harrera Zabaleta auzoan

2015-10-03 Ongietorri berezia prestatu zioten Zabaletako auzotarrek udazkenari.

GoiEner kooperatibak hitzaldi interesgarria eman zuen eta hura amaitu ostean sardina-jana egin zuten trikiti eta pandero doinu artean, giro ederrean, Antonio Blas plazan.

Herriko batzokiaren 25. urteurrena

2015-10-03 Ekitaldi xumea egin zuten Lasarte-Oriako EAJko kideek herriko batzokiaren 25. urteurrena ospatzeko.

Kalisto Maritxalar eta Joxe Ramon Gerrikagoitia herritarrek oroigarriak jaso zituzten alderdiko militante historiko izateagatik, eta hori baino lehen hitzaldi bana eskaini zituzten Juan Mari Alkorta herriko kideak eta Joseba Egibar Gipuzkoa Buru Batzarreko lehendakariak.

Nagusiak martxan

2015-10-03 Arrakastatsua izan zen oso Biyak Bat elkarteak antolatutako IV. Martxa erregulatua. Hainbat bikote animatu ziren herrian zehar paseotxo bat ematera, eguraldi ona lagun. Ordu eta erdi inguruko ibilbidea osatu zuten parte-hartzaileek, Okendo plaza abiapuntu eta helmuga izanik. Helmugan bertan ur freskoa, txorizo ogitartekoa eta xanpain botila bana jaso zituzten parte-hartzaile guztiek, eta horrez gain hainbat sari gehiago ere zozketatu zituzten.

Txiletik etorritako teknikariak Lanbide Eskolan

2015-10-05 Usurbilgo Lanbide Eskolak, urriaren 5ean "Txilerako Teknikari Programa"-ri hasiera eman zion. Programa honek goi mailako teknikari txiletarrek bere herrialdean garapen ekonomiko beharrei erantzuteko gaitasun berriak hartzea du helburu.
Teknikari taldeak urria eta ekaina bitartean bero, eoliko eta fotovoltaiko energian zein eraginkortasun energetikoan prestakuntza berezia jasoko du .

Jai giroan hasi zen Aste Kulturala

2015-10-06 Giro ederrean hasi zuen Semblante Andaluz elkarteak Aste Kulturala. Hainbat bazkide, udal ordezkari eta lagun bildu ziren ohorezko ardoarekin topa egin eta ekintzei hasiera emateko. Gitanillas del Alba dantza taldeak eta Semblante Rociero koruak girotu zuten hasiera ekitaldia.

Herriko komertzioa biziberritzen

2015-10-07 Udalak eta Aterpea merkatarien elkarteak komertzioa biziberritzeko ekimena jarri zuen martxan. Gaur egun itxita dauden denda batzuek euren erakusleihoak erabiltzeko aukera eman zieten aktibo dauden beste zenbaiti. Gauzak horrela, bizia hartu zuten berriro establezimendu horiek, komertzioek hainbat produktu iragartzen baitituzte bertan.

Jakoba Errekondorekin solasaldi arrakastatsua

2015-10-08 Jakoba Errekondok 'Bizi Baratzea' liburua aurkeztu zuen Manuel Lekuonan. Usurbilgo agronomo eta paisajistak baratzaren inguruko liburua atera du Argiarekin eta honetan asko dira azaltzen dituen gaiak. Euskal Herriko baratza, tradizioz, anitza izan dela azpimarratu zuen eta egun uniformaziorako joera dagoenez kultura hori galtzen ari dela esan zuen. Horretaz gain, liburua idazteko garaian, euskara zeinen aberatsa den konturatu da eskualde, herri bakoitzean izen ezberdinak topatu dituelarik landare zein baratzeko lanentzat.

Denis Itxaso kiroldegia ezagutzen

2015-10-08 Gipuzkoako Diputazioko Kirol departamentuko diputatu Denis Itxaso Lasarte-Oriara etorri zen kiroldegiko egoera gertutik ezagutzera. Alkatearekin bildu eta bisita egin zuten, instalazioak ikusi eta kirolarien eskaerak entzuteko. Txus Alonso kirol zinegotziak ere parte hartu zuen bisita horretan. Amaitzean, Karlos Altunak herritarrek egindako ekarpenen dokumentu bat eta udal teknikariek prestatutako txostena eman zizkion Itxasori.

94 urteko zigorra Arrozpiderentzat

2015-10-08 Audientzia Nazionalak 94 urteko espetxe zigorra ebatzi zuen Santi Arrozpiderentzat, 1987. urtean Bartzelonan jazotako atentatuan pertsona baten heriotza egotzita.

Solaskide ikasturtearen hasiera

2015-10-09 Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako Solaskide programari hasiera ederra eman zioten hainbat kidek, Arrieskalleta elkartean afari berezia eginez. Herrian 100 bat lagun elkartzen dira guztira euskaraz hitz egiteko, talde desberdinetan banatuta. Antolatzaileek azpimarratu zuten urte osoan zehar dagoela irekita izena emateko epea.

Manttangorriren geralekuetan seinaleak

2015-10-09 Udalak 8.134 euroko finantzazioa eskatu zion Eusko Jaurlaritzaren Hirigune programari, Manttangorriren geralekuetan seinaletika ipintzeko. Gauzak horrela, hiribusaren 28 geltokietan jarri dituzte seinaleak.

Elkarbizitzaren inguruko gogoetak

2015-10-10 Ganbo Iturri elkarteko kideek 'Herrietako bizikidetza saioak: elkarrizketak eta kontrasteak' ikastaroa burutu zuten. Iker Uson Baketik taldeko teknikaria, Joxe Agustin Arrieta Tolosako taldeko kidea eta Etikarteko Patxi Meabe aritu ziren; Jexux Arretxek egin zituen aurkezle lanak.

Jaiak hartu zuen plaza

2015-10-17 Euskal Jaia eta Topa Eguneko egitaraua arrakastatsua izan zen erabat. Goizean, Euskara elkarte ezberdinetan burutzen diren hainbat egitasmo ezagutu zituzten herritarrek.

Euskal Jaian berriz, ekitali andana egin ziren egun osoan zehar. Kalejira egin zuten herri osoan zehar, Okendon amaituta. Bertan, Joseba Ostolaza eta Aimar Galarraga harrijasotzaileek erakustaldia eman zuten. Paella bazkaldu zuten bertaratutakoek eta, ondoren, arratseko ekintzei hasiera eman zitzaien. Dantza eta musikarekin gozatu zuten herritarrek egun osoan

Topa Egunaren baitan, Ttakun Kultur Elkarteak Atarrabiko Karrikaluze Elkarteari eman zion testigua, eta harekin, hurrengo urtean jaialdia antolatzeko ardura.

Ossama Ifraj eta Ana Ollo garaile Lasarte-Oria Bai Krosean

2015-10-25 Giro ederra izan zen herrian Lasarte-Oria Bai! XX. Kros Herrikoiari esker. Ossama Ifraj, Ana Ollo eta Noblia Pette izan ziren kategoria desberdinetako irabazleak.

Ohi bezala, elbarriek ekin zioten lasterketari lehenbizi. Minutura, helduen lasterketako txistua jo zuten antolatzaileek.

Lasterketa hasieratik aurre hartu zuten faboritoek, horien artean, Raul Gomez Margallo herritarrak. Helmurako bidean, Ossama Ifrajek erritmoa azkartu eta Tancok ezin izan zion eutsi. 33:28ko denbora egin zuen garaileak. Raul Gomez Margallo herritarra hirugarren izan zen.

Emakumeen lasterketan Ana Ollok erdietsi zuen garaipena,

37:17 denbora eginez. Hamar segundo beranduago iritsi zen Guerrero. Hirugarrena Nerea Egia donostiarra izan zen.

Jende andana Ibilbideen Egunean

2015-10-11 Ibiltariz bete zen herria Buruntzaldeako Ibilbideen Egunean. San Pedro eliza alboan kokatu zen kontrol gunea.

Bost ibilbide eduki zituzten aukeran, natura nahiz kultura aldetik interesgarriak diren hainbat toki bistaratzeko. Andoain-Lasarte-Oria bidean lotura berria markatu zen. San Rokeko ermitatik, Buruntzako gailurrera eta Lasarte-Oriaraino doana.

Andaluziar doinuak nagusi Atsobakarren

2015-10-11 Urriko zubian andaluziar kultura izan zen nagusi Atsobakar auzoko Golf plazan. Semblante Andaluzen Aste Kulturaleko ekintzak bertan burutu ziren.

Golf plazan jarritako oholtza izan zen artista eta talde ezberdinentzat agerleku.

Euskal Jaiaren aurrekari arrakastatsua

2015-10-12 Ramon Agirre eta Inazio Tolosak 'Koka Kola eta barea' antzezlana oholtzaratu zuten Abend kafe-antzokian, Euskal Jaiaren aurrekari gisara.

131 garaje alokairuan ateratzeko urratsa

2015-10-14 Okendoko, Tajamarreko eta Beko Errotako 131 garaje alokairuan ateratzeko eskaerak Ogasun Batzordean onartuak izan zirela jakinarazi zuen Jesus Maria Zaballos alkateak udalbatzarrean.

Euskararen etorkizuna eztabaidagai

2015-10-15 Euskaltzaletasunaren eta euskararen etorkizuna izan ziren aztergai Jasone Mendizabal eta Iñaki Martinez de Luna Topalabeko kideen eta Pablo Suberbiola Soziolinguistika Klusterreko kidearen eskutik.

Ttakun KEk eta Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta, Topalab taldeak idatzitako 'Berrikasi eta berrikusi' testua aztergai izan zen Villa Mirentxun.

'Itsasoa', 2016ko Inauterietako gaia

2015-10-19 Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria eta Festak batzordeak jakinarazi zuen 'Itsasoa' izango dela datorren urteko inauterietako gaia. Otsailaren 6a izango da gai horrekin lotutako mozorroak jantzi eta kalera irteteko eguna, eta 7a Euskal Inauteriena.

Irakurle txokoa berriro martxan

2015-10-20 Sofi Oksan idazlearen 'Garbiketa' lana aztertuz ekin zioten ikasturte berriari Irakurle txokoko kideek. Hilero-hilero biltzen dira kultur etxeko hitzaldi aretoan, hirugarren astearteetan, 18:30ean.

Aurreko urtean bezala, Uxue Alberdi kazetari eta idazlea ari da dinamizatzaile lanetan.

Memoria istorikoari herdoila kenduz

2015-10-22 Errepublikarrek 1936an eskuz egindako lehergailuen 22 pieza aurkeztu zituen herriko Islada Ezkutatuak taldeak. Hori izan zen elkartearen azken aurkikuntza; iragan maiatzan topatu zituzten pieza horiek, Txaldatxur mendixkako lubaki batean.

Udaletxe berrian aurkeztu zituen pieza historiko horiek jendartean, eta baita haien jatorria azaldu ere.

Zapatila gorrien ahalmena

2015-10-24 Lepo bete zen kultur etxea, Ados Teatroak estreinatutako 'Zapatila gorridun mutikoa' antzezlana ikusteko. Gogotik gozatu zuten ikusleek ikuskizunarekin.

Suberriren kontzertua San Pedro elizan

2015-10-24 Suberri akordeoi taldeak kontzertua eskaini zuen San Pedro Elizan, bazkideei zuzendutakoa. Elias Goikuriak zuzendutako musikariekin batera aritu ziren Donostiako Aita Donostia koruko kideak, emanaldi paregabea eskainiz.

Mugarik gabeko festa

2015-10-25 Aurtengoan ez zion mugarik jarri Ostadar SKTk XV. Korrika Festako parte-hartzaile kopuruari, eta orain arteko marka guztiak hautsi zituzten: 2000 eta 2009 urteen artean jaiotako 950 gaztetxok egin zuten lasterka Geltoki kalean, giro ederrean.

Eskoletan kirola sustatuz

2015-10-27 Lasarte-Oriako Udalak eta herriko ikastetxeetako Guraso elkarteek eskola kirolaren jardunari buruzko hitzarmena sinatu zuten.

Hitzarmen honek berrikuntza bat dakar: Udalaren eta ikastetxeen artean egitura berri bat sortzea hain zuzen.

Aire Garbia plataforma martxan

2015-10-28 Lasarte-Oriako herritar talde batek Aire Garbia plataforma osatu du. Zubietako errauste plantaren proiektua berriro martxan jartzearen asmoak gure herrian sortzen duen ezinegona agertu zuten.

Gartzia bigarren Zubietan

2015-10-31 Endika Gartzia herritarrak bigarren postua eskuratu zuen Zubietako V. Mendi duatloian, 1:06:44ko denbora eginez.

Julen Larruzeak eskuratu zuen garaipena, Gartzia baino 18 segundo lehenago helmugaratuta. Emakumezkoen kategorian Aitziber Ibarbiak irabazi zuen.

Jon Ander Puertas Europako txapeldun

2015-10-31 19 urteko errugbi jokalariak Europako txapelketa irabazi zuen Lisboan (Portugalen), 19 urtez azpiko Espainiako selekzioarekin.

Garcia
AUTOBUSAK
Nafarroa etorbidea 32-2.A
(Leku-Eder etxea)
Tel: 943 37 27 37
20800 ZARAUTZ

Garcia

Urte berri on!

• Edozein eratako bidaiak egiteko zerbitzu aproposak

• Bestelako zerbitzuak

Azaroa

Ikusteko olerkia

2015-11-01 Liluratu egin zituen herritarrak Claire Ducreux-en 'Refugiada poética' antzezlanak. Dantza eta antzerkia maisuki uztartzen ditu lanak; piano doinuak lagunduta, eszenografia sinple batean egindako interpretazioarekin kalean bizi den behartsu baten istorioa kontatzen da.

Hildakoei omenaldia

2015-11-01 Urtero lez, herritarrek euren zendutako ahaideak izan zituzten gogoan eta hilerrira gerturatu ziren haiei bisita egitera.

Hippie garaiak gogoan Okendon

2015-11-01 Hippie garaiak pare bat egunez bueltatu ziren Okendo plazara. Garai historiko horretan oinarrituta girotu zuen Udalak artisau azoka. Horrez gain, hainbat jolas eta ikuskizunez gozatu zuten ume zein helduek.

Aitor Anabitarte Gipuzkoako selekzioarekin

2015-11-01 Gipuzkoako selekzioak infantil mailako Euskadiko saskibaloi txapelketa poltsikoratu zuen Amurrion. Taldekideetako bat herrikoa zen: Aitor Anabitarte.

Padel pistako zoruan aldaketak

2015-11-02 Erabileraren ondorioz hondatuta zegoen jada padel pistako zorua eta, aitzakia horrekin, moldatzea erabaki zuen Udalak. Gestión de Proyectos enpresak egin zituen moldatze-lanak, 5.566 euroko aurrekontuarekin.

400 gazte baino gehiago Eskola Kirolan

2015-11-02 Kirolariak dira oso herriko belaunaldi berriak, 400 gaztetxo baino gehiago ari baitira aurten Eskola Kirola egitasmoan.

Neska-mutil horiek guztiek aukera oso zabala dute: tenisa, atletismoa, futbola, saskibaloia, judoa, pilota, natur ekintzak, josta-kirola...

Orain arteko ibilbidea gogoan

2015-11-02 Badira 18 urte Lan eta Lan antzerki taldea martxan jarri zenetik eta, urtemuga berezi hori ospatze aldera, ekintzaz betetako egitaraua prestatu zuten. HHI-EPAko ikasle ohi talde batek osatu zuen taldea 1997an. Batetik, erakusketa ikusgarria antolatu zuten Antonio Mercero aretoan. Urte guzti horietan erabilitako atrezzo-a, argazkiak, emanaldiak iragartzeko kartelak eta beste hamaika gauza bildu zituzten bertan.

Horrez gain, autore klasikoen obrak ekarri zituzten areto horretako taulara, Miguel de Cervantesen 'El viejo celoso', esaterako.

Kurdoen egoera aztergai

2015-11-05 Xirimiri elkartea libre uztearen alde hainbat ekintza ari dira burutzen bertako kide eta lagunak. Horien artean, afari-merienda saioak, gai zehatz bati buruz hausnartu eta mokadutxo bat jatean oinarritzen direnak.

Siria eta Kurdistan izan ziren hizpide lehenengo saioan.

2016ko ordenantza fiskalak onartuta

2015-11-06 Udalbatzarrak ezohiko saioan onartu zituen datorren urtera begirako ordenantza fiskalak. KPIa %1,3 igoko dela aurreikusten du Udalak, eta hori oinarri gisa hartuta hainbat tasa igoko ditu: IBI Ondasun Higiezinen Zerga, musika eskola eta udal euskaltegiko tasak, estolderia, zaborra eta hilerrikoa besteak beste.

Doinu barrokoez gozatzen

2015-11-06 Musika barroko emanaldi batek eman zion hasiera Danok Kide elkarteak antolatutako XI. Musika Topaketei. Ivan Moreno gitarra jole eta Amaia Larrayoz eta Marta Santolaya sopranoek kontzertu paregabea eskaini zuten. Besteak beste, Monteverdi, Strozzi edota J.S. Bachen lanak eskaini zituzten.

'Amama', jolas zinematografikoaz gozatzen

2015-11-06 Okendo zinema taldearen eskutik 'Amama' filmaz gozatu zuten hainbat herritarrek kultur etxean. Era berean, Asier Altuna zuzendaria ere saioan izan zen, ikusleekin batera filma aztertuz eta haien galderak erantzunez.

Herritar ugari Behobia-Donostia lasterketan

2015-11-08 Herritar ugarik egin zuten lasterka Behobia-Donostia proba ezagunean. Arerio arriskutsuak izan zituzten egun horretan, beroa eta haizea, baina lasarteoriatarrek ederki egin zieten aurre. Raul Gomez Margallo izan zen herrikoen artean azkarrena, 1:10:22 segundoko denbora eginez.

Celestino Rivera, garajea sorleku

2015-11-09 Garajea sorleku gisa erabiltzen du Celestino Rivera artistak. Bertan dauka tailertxoa; material desberdinak landuz egiten ditu artelanak. Egurrean egindako hiru lauburu izan dira labetik ateratako lan berrienak.

Indarkeriaren biktimak gogoan

2015-11-10 Udal korporazioko ordezkariak eta hainbat herritar Askatasunaren parkean elkartu ziren memoriaren eguna ospatu eta indarkeriaren biktimak omentzeko. PPko zinegotzia izan ezik, beste guztiak izan ziren bertan.

Rocioko Ermandadearen 20. urteurrena

2015-11-13/15 Semblante Andaluz elkarte barruan dagoen Rocioko Ermandadeak hogei urte bete zituela eta, pare bat ekitaldi antolatu zituen elkarteak.

Batetik, Ermandadeko kide eta lagunek luntx bat egin zuten, Amigos del Sur taldearen emanaldiaz gozatu aurretik. Bestetik, bazkari herrikoia egin zuten elkartean bertan eta Semblante Rociero koruaren musikaz gozatu zuten ondoren.

Baserritik herritarren etxeetara

2015-11-14 Herritarrek aukera ederra izan zuten Okendo plazan antolatutako III. Baserri azokan produktu fresko eta kalitatezkoak euren etxeetara eramateko. Jende andana ibili zen goiz osoan zehar bertan posturik postu, salgaiak ikusi eta erosten.

Elebeltz, musika elektronikoaren topagune

2015-11-14 Oso arrakastatsua izan zen herriko hainbat eragilek antolatutako I. Festa Elektronikoa.

Elebeltz musika estilo horren topagune bihurtu zen, eta lagun gutxi batzuen arteko topaketa izan behar zuena jaialdi erraldoi bihurtu zen.

Urtzi Telleria garaile Amezketan

2015-11-15 Albitzuri-Aundi harriaren txapelketa poltsikoratu zuen herriko harrijasotzaileak. Sei aldiz altxa zuen 166 kilo inguruko harria, Aimar Irigoien errezildarrak bezainbestetan. Kilo gutxiago pisatzen ditu Telleriak, eta arrazoi horregatik jantzi zuen txapela.

Kulturarteko festa Michelingo pilotalekuan

2015-11-15 Kultura desberdineta-ko ehun pertsona baino gehiago elkartu ziren Michelingo pilotalekuan bazkari multikulturalaz gozatzeko. Jaki ezin goxoagoak dastatu zituzten hara bertaratutakoek, giro ederrean. Bapo jan eta digestioa egin ostean, gorputza dantzan jarri zuten Katherin Apoloren kunbia emanaldian eta haur zein helduentzako karaokean.

Hungariarako txartela poltsikoan

2015-11-14/15 Lasarte-Oriak ordezkaritza izango du datorren udan jokatuko den Europako txapelketan. Daniel Oliver eta Jorge Cid herritarrak Hungariara joango dira uztailan edo abuztuan, Oropesan jokatutako Espainiako txapelketa irabazi eta gero, 501 modalitatean, taldeka.

'Diruaren sexu ezkutua' erakusketa

2015-11-16 Emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna zela-eta, ekintza-sorta zabala prestatu zuten azaroaren 25a iritsi aurretik. Horietako bat izan zen 'Diruaren sexu ezkutua' izeneko erakusketa. Haurralde fundazioko Patricia Poncek azaldu gisara, garai eta leku desberdinetako emakumeen diru zorroak bildu zituzten, emakumearen eta diruaren arteko erlazioa aztertzeko, "diru txikiaren" arduradun izan baitira historikoki, eguneroko kudeaketa eginez.

Arazo psikologikoak garain garai

2015-11-17 Irakurleen txokoko kideek Itxaso Martin idazlearen bisita

Lasarte-Oria, akordeoiaren hiriburu

2015-11-14 Lasarte-Oria akordeoiaren hiriburu bilakatu zen egun batez. Zero Settek XII. Akordeoi jaialdia antolatu zuen Manuel Lekuona kultur etxean.

Eric Bouvelle soinujole frantsesak zeharo txundituta utzi zituen jaialdira bertaratutakoak, akordeoiarekin duen abilezia erakutsiz. Mirari Etxeberria biolinista gazteak eta Donostiako Musika Eskolako dantzariek 'Dantza Makabroa' obra

interpretatu zuten maisuki eta, amaitu aurretik, Donostia 2016 kultur hiribururako prestatutako abestia jo zuten aurreko guztiek, Zero Sette berarekin batera.

Errauskailuaren aurkako oihua

2015-11-21 Jende mordoa batu zen Zubietan eraiki nahi den erraustegiaren kontrako manifestazioan. Lasarte-Oriako eta inguruko herrietako pertsonek egin zuten bat Aire Garbia plataformak deitutako mobilizazioarekin.

Salatu zuten errauste plantak osasunerako kaltegarriak diren hainbat gas toxiko igorriko dituela eta egitasmoa atzera botatzeko eskatu zuten, hondakinak kudeatzeko modu garbi eta merkeagoak daudela aldarrikatzearekin batera.

izan zuten. Hark idatzitako 'Ni, Vera' liburuari buruz aritu ziren solasean, Uxue Alberdik dinamizatutako saioan.

Aitor Carrasco, birkontratatuta

2015-11-18 Manuel Lekuona kultur etxeko liburutegian lanean aritzen den adimen urritasuna duen Aitor Carrasco herritarra birkontratatu zuen Udalak, hirugarren urtez.

Toni Bou munduko Trial txapelduna Michelin fabrikan

2015-11-20 Bisita berezia jaso zuten Michelin fabrikako langileek. Trialeko munduko txapelduna den Toni Bou izan zen herrian, erakustaldi txiki bat egin eta langile zein zuzendaritzarekin solasean.

Beldur Barik sariak, banatuta

2015-11-20 Beldur Barik lehiaketako 12 eta 17 urteko kategorian Noa Carreterok, Amaia Hartok eta Asier Olmosek irabazi zuten lehen saria, 'XXI. mendean' lanarekin. 18 urtetik gorakoena berriz, Ane Galardirentzat izan zen, 'Aurrera' laburmetraiarekin. Berdintasunaren eta feminismoaren inguruko gaiak jorratuz.

Literatur Lehiaketa arrakastatsua

2015-11-21 Urtero bezala, Literatur Lehiaketa antolatu zuen Udalak herriko haur zein helduentzat. Epaimahaiaren iritziz lan onenak egin zituzten idazleak sarituak izan ziren kultur etxean ospatutako ekitaldi xumean.

Ahaleginari saria

2015-11-21 Beltzak errugbi eskolan aritzen diren bost herritar 14 urtez azpiko Gipuzkoako selekzioarekin entrenatu zuten Zarauzko Asti zelaian. Unai Pelaez, Mikel Ibisate, Gabi Gavilan, Paola Vega eta Jokin Beloki aritu ziren saio horretan.

Xumela Errigorarekin bat

2015-11-21 Lasarte-Oriako Xumela koruko lagunak Zarauzko Montetxio eta Hondarribiko Olagarro koruetako kideekin batera Nafarroako Erriberan izan ziren. Bertan Errigora egitasmoan bere harritxoa jarri zuten.

Musikarien eguna ospatzen

2015-11-22 Santa Zezilia euren zaindariaren eguna izanik, musikaren munduan murgilduta dabiltzan herriko hainbat eragilek emanaldiak eskaini zituzten.

Esaterako, Alboka abesbatzak. Bestalde, Udal Musika Eskolako pandero eta trikitixa ikasleek emanaldi berezia eskaini zuten Atsobakar zaharren egoitzan.

Udalaren iragarkiak, webgunean

2015-11-23 Udaletxe sarreran zegoen iragarki-taula kentzea eta haren jardueraren berri Internet bidez ematea erabaki zuen Udalak, taula birtual baten bidez.

Gipuzkoako elkarbizitza mintzagai

2015-11-26 Elkarbizitza, abertzaletasuna XXI. mendean eta hondakinen kudeaketa izan ziren jorratutako gaiak BAI plataformak antolatutako hitzaldietan.

Hobekuntzak Erregeen kabalgatan

2015-11-26 Herriko Megaba elkarteak iragarri zuen hainbat hobekuntza burutuko zituela Errege Magoen kabalgatan. Jantziak eta karrozak hobetzeko konpromisoa hartu zuten.

Intza KEko seniorrak Lehenengo mailara

2015-11-28 Partidu bikaina egin ostean, Intza KEko pilotariek Gipuzkoako seniorren Lehenengo mailara igo ziren. Jon Pello Artetxek eta Mikel Elolak osatutako bikoteak erosotasunez lortu zuen helburua, Asteasuko Atzapar klubeko Urbieta eta Iruretagoyena 22-12 mendean hartu eta gero. Igotzea lortzeaz gain, 2. mailako txapelketa ere irabazi zuen Intza KEk.

Esteban Martinez Euskadiko txapeldun

2015-11-28 LOKEko senior mailako judoka Esteban Martinezek urrezko domina kolkoratu zuen Hernanin jokatutako Euskadiko txapelketan. Asier Sagastik, berriz, zilarrezkoa kolkoratu zuen eta Josu Olmosek brontzezkoa.

Emozioz betetako jaialdia

2015-11-28 Jalgune elkarteko lagunek jaialdi koloretsu eta alaia eskaini zuten beste urte batez kultur etxean. Abenduaren 3a urritasuna duten pertsonen nazioarteko eguna da, eta aitzakia horrekin festa ederra antolatzen du elkarteak.

Itxaropenez aurrera begira

2015-11-28 Bete berri dituen 26 urte hauetan, milaka eikintza egin dira Xirimiri Elkartean. Horiek denak gogora ekarri eta bizi duen ixteko mehatxuaren aurrean, etorkizunari itxaropentsu begiratzeko omenaldi txiki bat prestatu zuten antolatzaileek.

Batetik, urte horietan denetan ospatutako ekintzen irudiekin erakusketa prestatu zuten antolatzaileek, gerturatu ziren herritarren gozamenerako. Ostean, ederki bazkaldu eta 'Xirimiri Kantari' ekimenerako indarrak berritu, eta Jon Lasaren laguntzaz, abesti ezagun mordoa abestu zituzten.

Etxeko txiki eta ez hain txikiek Porrotxen bihurrikeriez ere gozatu zuten eta mus txapelketa ere izan zen.

Donostiako Maratoian ere herritarrak lasterka

2015-11-29 Donostiako maratoi entzutetsuaren aurtengo edizioan 23 herritarrek hartu zuten parte denera. Xabier Carcedo Gonzalez izan zen lasarteoriatar azkarrena; 2 ordu, 56 minutu eta 42 segundo behar izan zituen ibilbidea osatzeko.

Maratoi erdiko distantzian parte hartzera ere animatu ziren beste batzuk. Raul Gomez Margallo izan zen azkarrena, ordu bat, 11 minutu eta 19 segundotan burutuz ibilbideko 20 kilometroak.

Brontzezko domina Maialen Chourrautentzat

2015-11-28/29 Rio 2016ko Olinpiar Jokoak prestatzen jarraitzen du Maialen Chourraut herriko piraguistak. Test bat burutu zuen hiri horretako kanal ireki berrian, hirugarren postua eta brontzezko domina eskuratuz K1 modalitatean. 26 herrialdetako 122 palistak hartu zuten parte frogan.

Abendua

'Guk Kirola Euskaraz' hitzarmenaren 2. fasea abian

2015-12-02 Euskararen Nazioarteko egunaren bezperan 'Guk Kirola' Euskaraz hitzarmenaren bigarren atala sinatu zuten Udaleko Euskara Batzordeak eta egitasmoan parte hartzen ari diren zazpi elkarteek.

Fase horretan euren jardunean euskararen presentzia areagotzeko hainbat neurri eta konpromiso hartu dituzte sinatzaileek. Horretarako, Ttakun Kultur Elkarteak burututako diagnosia erabili dute; bertako kideak elkarte sinatzaileetako bakoitzarekin bildu eta euren alorretan hizkuntzak betetzen duen papera aztertu zuten.

Sinaketa ekitaldiaren aurretik, euskara eta kirola uztartu zituen mahai inguru interesgarriaz gozatu zuten kultur etxera joandakoek. Xabier Usabiaga kazetariak gidatu zuen saioa; Iñaki Artola pilotari profesionala, Gaizka Garitano futbol entrenatzailea eta Iratxe Aranburu korrikalaria izan ziren hizlariak orduko horretan.

Valentina Yeregi herritarrak 100 urte bete zituen

2015-12-02 Zabaleta auzoko hainbat lagunek Valentina Yeregi omendu zuten, 100 urte bete baititu aurten herritarrak. Lore sorta oparitu eta bertsoak eskaini dizkiote. Arratsalde atsegina igaro zuten denek elkarrekin, aspaldiko istorioak eta kontakizunak partekatuz.

1936ko azaroan ezkondu zen Gracian Ollokiegirekin. Hurrengo urteko martxoaren 31n italiarrek Durango bonbardatu zutenean, haiek Abadiñon zeuden. Alde egin behar izan zuten, Santanderrera lehenik, eta Frantziara ondoren. Seme bakarra, Rafael, Tours-en jaio zen, erbestean.

Valentinak Mitxelingo lantegian egin zuen lan urte askoan. Esan bezala, seme bakarra du Valentinak, bi biloba eta hiru birbiloba.

Tokiko komunikabide batzuen edizio berezia

2015-12-03 TOKIKOM sareko hainbat hedabidek zenbaki berezia kaleratu zuten abenduaren 3an, Txintxarri aldizkariak barne, erdaraz, euskara ulertzen ez dutenei ere euskal komunitatearen berri emateko. 2014an Aiaraldeak izandako ideia oinarritzat hartu eta ekimen horretan parte hartu zuen Txintxarrik, Euskal Herri mailako beste zazpi hedabiderekin batera.

Sancho eta Yolanda irabazle III. Pintxo Ibilbidean

2015-12-04 Sancho eta Yolanda tabernek irabazi zituzten III. Pintxo ibilbideko sari nagusiak. Aurtengo edizioan estreinekoz eman den Martin Berasategi saria eta herritarrena irabazi zituzten, hurrenez hurren. Asun Apezetxea eta Luis Mitxelena sukaldariek jaso zituzten garaikurrak udaletxeko pleno aretoan. Txanpinoi barrubetea prestatu zuen lehenak eta bigarrenak berriz, hiru saltsadun masail iberikoko alberjinia hostopila.

Aterpea merkatarien elkarteak antolatzen du ekitaldia. Kideak pozik ziren ekimenak izandako harrerarekin. Jakinarazi zuten 2.500-3.000 pintxo inguru saldu zirela azaroko azken asteburuan zehar.

Gabonetako argiteriaren aurrekontua, hirukoiztua

2015-12-04 Eguberrietako festak iritsi baino ia hiru aste lehenago jarri zuen martxan Gabonetako argiteria Lasarte-Oriako Udalak, Aterpea merkatarien elkartearekin batera. Zeregin horren aurrekontua hiru bider altuagoa izan da aurtengo ikasturtean.

Aterpeako lehendakari Ramon Ormazabalek azpimarratu zuen era positiboan eragiten duela argiteriak komertzioetan erosterako orduan.

Brigitarren komentuko organuari omenaldia

2015-12-04 Brigitarren komentuko organuak 100 urte betetzen zituenaren aitzakiarekin omenaldi musikala jaso zuen Belen Garcia organista eta Haizea Muñoz sopranoaren eskutik, komentuan bertan. Azpeitiako Organeriak eraiki zuen, 1915ean. Danok Kide elkartean antolatutako XI. Musika Topaketen baitako emanaldia izan zen.

Indarkeria matxistaren gaitzespen jendetsua

2015-12-09 Herritar andana bildu zen Okendo plazan, herriko emakume batek pairatutako eraso sexista salatzeko. Lasarte-Oriako Talde Feministak deitu zuen elkarretaratzea. Emakumea etxerantz zihoanean ohartu zen gizon bat segika zuela, irainka eta gorputzarekin keinuak eginez. Emakumeak aurre egin zion erasotuari. Erasoa gaitzesteaz gain, talde feministako kideek salatu zuten erasotuak arazoak izan zituela Ertzainen komisarian salaketa jartzeko.

Handik bi astera beste salaketa bat jarri zuten Lasarte-Orian jazotako beste eraso sexista bat zela-eta. Hernaniko Ertzain-Etxeak bere gain hartu zuen inbestigazioa; pertsona bat atxilotu zuen gertakari horri lotuta. Eguberri eguneko goizaldean gertatu zen.

Saskibaloia garaile

2015-12-06/07 Ikuskizun paregabea eta kilate askoko saskibaloia eskaini zuten emakumezko infantil mailako Euskadi, Galizia, Gaztela-Leon eta Madrilgo selekzioek abenduko zubian zehar. Madrilek irabazi zuen txapelketa, baina garaile nagusia saskibaloia bera izan zen inolako zalantzarik gabe.

Herritar ugari gerturatu ziren kiroldegiko harmailetara, etorkizunean zeresan handia emango duten jokalariak gertutik ikustera. Antolatzaileak oso pozik azaldu ziren ekitaldiak hartutako dimentsioarekin.

Kurdistango hizkuntza aktibista talde bat herrian

2015-12-04 Kurdistandik etorritako hizkuntza aktibista ordezkaritza bat izan zen Lasarte-Orian, Garabide elkartearen eskutik. Bost lagunek osatu zuten taldea; euskararen berreskurapen esperientzia ezagutzera etorri ziren eta, burututako bisiten artean, Lasarte-Oriara eginikoa.

Udalaren Euskara batzordearen eta Udal Euskaltegiaren jarduna ezagutu zuten, eta baita Ttakun Kultur Elkartearena ere.

Giza katea euskal presoen eskubideen alde

2015-12-10 Euskal presoen eskubideen aldeko giza katea egin zuten hainbat herritarrek Osasun Zentrotik hasi eta herriko kaleetan barrena, Sarek antolatuta. Ibilbidea osatu bitartean Giza Eskubideen aldarrikapeneko pasarte batzuk ekarri zituzten gogora. Horrez gain, euskal presoen eta bereziki larriki gaixo daudenen eskubideak betetzeko eskatu zuten.

Janari banaketa familia behartsuen artean

2015-12-10 Egoera ekonomiko larrian dauden 234 familien artean 7.189 kilo janari banatu zituen Udalak. Batez ere, kontserbak eta oinarrizko elikagaiak izan dira lagindutakoak banaketa horretan.

Iñaki Petxarromanen lehen eleberria

2015-12-11 Iñaki Petxarroman kazetari lasarteoriatarrak hark idatzitako lehen eleberria aurkeztu zuen Donostiako alde zaharreko Elkar dendan: 'Kearen fiordoa'. Islandian hil zituzten euskal baleazaleen gertakari

historikoa fikzionatu du kazetariak liburuan. Aurkezpenean zehaztu zuenez, gertakari horri buruz gutxi idatzi da; harena da euskaraz idazten den lehen kontakizuna.

Musika emanaldi anitza elkartasunaren alde

2015-12-11 Ben Younech (Tanger-Ceuta) proiektuaren aldeko elkartasun kontzertua egin zen Ama Brigitarren komentuan. Neskur Pagola eta Rosa Ormazabalek jotako txalapartaren erritmora hasi zen emanaldia.

Lehenik, Xumela koruak 'Gernikako arbolari' edo 'Atzo ttunttun' doinuak eskaini zituen. Jarraian, Brigitarren komentuko Ahizpa afrikarren ahotsak entzun ahal izan ziren. Haien herrialdeko abestiak kantatu eta dantzatu zituzten bildu ziren herritarren gozamenerako. Azkenik, Semblante Rociero koruaren txanda izan zen eta Rocioko Ama Birjinaren ohorez hiru abesti eskaini zituzten.

Herrialde Katalanetako independentismoa hizpide

2015-12-12 Xirimiri elkarteak mahai inguru bat antolatu zuen Manuel Lekuona kultur etxean, Kataluniako independentismoa gaitzat hartuta. Bertako egoera politiko eta soziala ezagutu ahal izan zituzten bertaratutakoek.

Bartzelonako Villafranca del Penedes herriko alderdi ezberdinetako ordezkariak gonbidatu zituen Xirimirik: CDCko Joan Manel Montfort, ERCko Pere Sabat, CUPeko Llorenç Casanova eta PSCko kide ohi den Xavier Lecegui. Mahai-ingurua gidatzen Kristina Bernal aritu zen.

Errugbi eskolen topaketa arrakastatsua Michelinen

2015-12-13 Lasarte-Oriako eta inguruko herrietako errugbi eskolak Michelingo zelaian bildu ziren, kirol hori ardatz hartuta festa erraldoia egiteko. Meleak, plakaketak, entseguak, lasterketak... Denetik egin zuten 10 eta 12 urte bitarteko haurrek.

Beltzak Ostadar Errugbi eskolako A eta B taldeek, Hernani (A eta B taldeak), Bera Bera, Iruña eta Atletico San Sebastian izan zituzten aurrez aurre. Ligila sistema erabilita guztiek guztien aurka jokatu zuten.

San Tomas arratsaldez berriro ere

2015-12-21 Bi urteren ostean, berriro ere arratsaldez ospatu zen San Tomas azoka herrian. Lasarteoriatarrek ez zuten arazorik izan ordutegia moldatu eta Ttakun KEk prestatutako egitarauaz gozatzeko.

Telleri baserritik etorritako txerrama eta kumeak sortu zuten ikusmira gehien Okendo plazara bertaratutakoen artean. Txistorradun talo eta antzeko jakiek ere arrakasta handia izan zuten, postu batek baino gehiagok dena saldu baitzuen.

Ospakizunak iraun bitartean herriko hainbat taldek girotu zuten arratsaldea.

Etorkizuneko hezkuntzari buruz hausnartzen

2015-12-14 Herriko Xumela abesbatzako zuzendari Josu Txapartegi 'Txapas' zarauztarrak hark idatzitako 'Ikastola 2050' liburua aurkeztu zuen DBHko institutuko musika gelan. Iragana eta oraina oinarritzat hartuz etorkizuneko hezkuntza ereduari buruz hausnartzen du dagoeneko jubilatua dagoen irakasleak.

Taloak egiten gozatuz

2015-12-15 Ume eta helduek, taloak egiten ikasiz, arratsalde atsegina pasa zuten Arrieskalleta Elkartean. Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako ekintza izan zen; Solaskide ekimenak eta Amaraun Klubak hartu dute parte.

San Tomas eguna gertu zela, lasarteoriar askok taloak norberak egiteko abilezia lortu zuten talo ikastaroari esker. Oso gustura aritu ziren denak, nahiz eta batzuei kosta egin zitzaien arto irina ondo zapaltzea. Amaitzean, denek jaso zuten sari bikaina: txistorraz, gaztaz edo txokolatez barrubetetako talo goxoa.

Gaixotasun arraroak dituzten umeen laguntzaile

2015-12-18 Ez ohikoak edota onkologikoak diren gaitzak dituzten umeei laguntza emateko 'Super H Hontz Zuriaren Lurraldean' liburua aurkeztu zuten. Miren Amurizak idatzi du eta kontzeptua eta marrazkiak Almudena Salasek egin ditu.

Argazkiekin Lasarte-Oria gogoratuz

2015-12-19 Urteari amaiera berezia eman zioten Zero Sette akordeoi orkestrako kideek. 'Gogoratzen duguna gara' diaporama eskaini zuten Manuel Lekuona kultur etxean. Lasarte-Oriako argazki zaharrez osatutako erakusketa izan zen, taldeko kideek eskusoinua jo bitartean. Herritar askok nostalgia ariketa bat egin zuten, eta beste askok euren herriaren iragana nolakoa zen ezagutu zuten.

Lasarte-Oria, kalean

2015-12-19 Eguraldia lagun, Lasarte-Oria Kalera Fest jaialdiaren lehenengo edizioa ezin arrakastatsuagoa izan zen. Herritar ugari ibili ziren kaleetan zehar kontzertu eta bestelako ekintza kulturalez gozatzen.

Goizetik hasi eta gaueko ordu txikietara arte luzatu zen festa. Zunba saioa, txalaparta, musika taldeak eta bakarlariak, magoak, elektrotxarranga... Herritarrek ez zuten aspertzeko astirik izan jaialdian zehar.

Antolatzaileek nabarmendu dutenez, "urteroko jaialdi" bihurtzeko asmoa dute eta, aurreneko edizioak izan duenarrakasta ikusita, are gogo gehiagorekin ekingo diote 2016koa prestatzeari.

Ahal-Dugu Podemos alderdi bozkatuena

2015-12-20 Lasarte-Orian Ahal Dugu-Podemos alderdia izan zen bozkatuena, abenduaren 20an egindako Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan. Horrela, PSE-EE ez den beste alderdi batek lortu zuen bozketan nagusitasuna herrian.

Bozken %28,17a eskuratu zuen Pablo Iglesiasek zuzendutako alderdiak. PSE-EEk %24,83 lortu zuen eta EH Bilduk %14,31. Horiek izan ziren hiru lehenengoak.

Parte-hartzeak gora egin zuen 2011koekin alderatuta, ia hiru puntu; herritarren %72,42a joan zen bozkatzera.

2015eko kirolari onenak omendu zituen Udalak

2015-12-20 Amaitzear den urteko

kirolari onenak omendu zituen Udalak ekitaldi xume batean. Eneritz Busto atleta, Eva Crespo Espainiako Body Fitness txapelduna, Axier Arteaga pilotaria, Maialen Chourraut piraguista eta Xabier Elizegi zein Iñigo Ibarburu igerilariek garaikur bana jaso zuten 2015ean egindako kirol merituengatik.

Miren Amuriza, Mozanbikeri buruz kontu-kontari

2015-12-20 Miren Amuriza bertsolari berriztarrak 'Kapulana bat Zintzilik' emanaldia eskaini zuen Abend Kafe Antzokian. Mozanbiken bizitako esperientziaren inguruan aritu zen narrazio eta bertsoen bitartez. Emakumeek erabiltzen dituzten oihal koloretsuak dira kapulanak; bat erakutsi zien Amurizak herritarrei.

Xumela abesbatzaren hamargarren urteurrenaren ospakizun ekitaldien baitakoa izan zen hori ere.

Oinezko ibilbideak Sagardoaren Lurraldean

2015-12-21 Eskualdeko zenbait udalek, Lasarte-Oriakoa barne, 'Oinezko ibilbideak sagardoaren lurraldean' mapa plazaratu zuten, bertako turismoa sustatzeko asmotan. Hogeitik gora oinezko ibilbide deskribatzen dira bertan, paraje natural, bista panoramiko eta beste hainbat.

Axier Arteaga Bankoa-DV txapelketan garaile

2015-12-23 Afizionatu mailako aroa ezin hobeto amaitu zuen Axier Arteaga herriko pilotariak. Bankoa-DV txapelketa entzutetsua irabazi zuen Daniel Murgiondorekin bikote eginez. 12-22 hartu zituzten mendean Xabier Urbieta eta Ibai Arratibel, Zumarragako Beloki pilotalekuan.

Urtarrilaren 4an debutatuko du Arteagak profesional mailan, bere garaian Juan Mari aitak emandako urratsei jarraiki. Arratsaldeko bostetan jokatuko du Tolosako Beotibar pilotalekuan, Ibai Zabalarekin bikote eginez. Elezkano II.a eta Ander Imaz izango dituzte aurkari.

Egindako lanaren saria Danok Kideren eskutik

2015-12-27 Danok Kide elkarteak urtero antolatzen dituen jaiotza lehiaketako sariak banatu zituen. Antolatzaileek jakinarazi zutenez, 18 lan aurkeztu dira aurtengo edizioan.

Elebeltz, musikaren topaleku beste behin ere

2015-12-27 Elebeltz Eztabaida eta Sorkuntza Askerako topagunea musika estilo desberdinen egoitza bihurtu zen beste urte batez.

Jendetza bildu zen topagunean, antolatzaileek prestatutako egitarau zabalaz gozatzeko. Hainbat talde eta bakarlari aritu ziren oholtza gainean; DJen txanda izan zen ondoren.

Ibarburu eta Esnal Eguberrietako Nazioarteko XXXIII Sarian

2015-12-29 Buruntzaldea IKTko Iñigo Ibarburu eta Mikel Esnal Eguberrietako Nazioarteko XXXIII Sarian parte hartu zuten Euskal Selekzioarekin.

Eraso sexistei gaitzespena

2015-12-29 Lasarte-Orian abenduko azken egunetan izandako ustezko eraso sexista gaitzesteko elkarretaratzea egin zen. Baieztatzekotan, herrian hiru astetan jazotako bigarrena litzateke.

Buruntzara txangoa 2015ari agur esateko

2015-12-31 Ostadar SKT-k eta Ttakun Kultur Elkarteak antolatuta, beste urte batez, 2015 urteari agurra emateko Buruntzara irteera egingo dute. Eguraldiak laguntzen badu, urtezahar egunean goiz pasa ederra egiteko aukera dute lasarteoriatarrek.

Lasarte-Oriako I. San Silvestre lasterketa

2015-12-31 500 herritar inguru aterako dira herriko kaleetara San Silvestre lasterketa entzutetsuan parte hartzera. Harrera bikaina izan du egitasmoak, lehenengo aldia baita horrelako lasterketa bat antolatzen dena Lasarte-Orian.

Harrera beroa Olentzerori

2015-12-24 Urtero bezala, Euskal Herriko ikazkin maitatuena menditik jaitsi zen lasarteoritarrei opariak banatzera, Mari Domingi eta Xixukorekin batera.

Herritarrek harrera beroa egin zieten horiei denei Okendo plazan. Ekitaldi koloretsua egin zuten denek elkarrekin Porrotx pailazo bihurriarekin batera. Ondoren, haurren eskutitzak jaso zituen ikazkinak.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea

LASARTE-ORIA UDALA

Laguntzailea

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri
Erredakzioa:
Nerea Eizagirre, Martin Vicioso, Iñigo Gonzalez.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

ERAIKIN BERRIA SALMENTAN, SOILIK

2 ETA 3 LOGELATAKO 14 ETXEBIZITZA. SANTA BARBARA ALDERA BISTA EZIN HOBEAK. ZONA BERDEAZ INGURATUTA.

189.000€
+ BEZ-TIK AURRERA

DONOSTITIK SEI MINUTUTAN!

residencial zabaleta berri bizigunea

INFORMAZIOA

943 368 942
www.zabaletaberri.es

%80A SALDUTA 1GO FASEAN

Eraiki aurreko merkaturatze sustapena. Informazio hau alda daiteke arrazoi tekniko edo komertzialengatik.
Interesdunen eskura dago gure bulegoetan iragarki honetan ez dagoen gainerako informazio guztia, 515/89 Errege Dekretuak, apirilaren 21ekoak, eskatzen duena.

Kutxabankek finantzatuta
kutxabank

Maite BETELU

- ✓ Aseguruak
- ✓ Etxebizitzen administrazioa
- ✓ Gestoria
- ✓ Aholkularitza
- ✓ Inmobiliaria zerbitzua

Urte berri on!!



Aralar plaza 4 behea • Lasarte-Oria
Tel.: 943 364886 • Faxa: 943 372117

aterpea lasarte/oria

aldaz
hortz klinika

Aldaz hortz klinikak
jai zoriontsuak eta
Urteberri on
2016
opa dizue

RPS 233/13
Esther Maestre Martín.
Odontóloga. Coleg. 20000570